



atzoko eta gaurko



politikariak

❖ ELKARRIZKETAK:

XABIER GURRUTXAGA (EUE), GOIERRIKO POLITIKORIK EZAGUNENARI. "TXATO" AGIRRE ATAUNDAR EKONOMISTA ETA POLITIKOAREKIN. ZALDIBIKO DEPOSITUTAKO JOAKIN IZAGIRREK HOBBY BITXIA DU. XANTI GARMENDIA GAINZATARRAK DOINUAK IRASKATEN DIZKIE BERTSO-ESKOLAKOEI. RAFA GONZALEZ TXIRRINDULARI-OHI BAINO ZALEAREKIN. FELIPE BARANDIARAN LAZKAOTARRA, ETBKO AHOTSETAKO BAT.

❖ ERREPORTAIK:

—"PAGOSA" OKINDEGIARENAK: ESKUALDEKO EGUNEROKO OGI-BEROA. BASERRIKO TRESNEN ERAKUSKETA BIKAINA ZERAINEN. "SANTAKRUZ" PASTORALA ORDIZIAN IPARTARREN ESKUTIK.

—KLASE PARTIKULARRAK INKESTAN, OHIZKO SAILAK ETA BESTE.

HIGIEN SEC

Gurutzte Ruiz de Azua

LEHORREKO ETA BUSTIKO
GARBIKETA BAKTERIOLOGIKOA

Urdaneta, 52 - Tel. 16 14 48 • 20240 ORDIZIA

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- Idazteko makinak
- Fotokpiak
- Koadernaketak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA

Z•M

Gipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO • ZUMALAKARREGI • MUSEOA
Ormaiztegi • Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

MARRAK
IDOIA - KARMELE
ESTILISTAK

Ileapaindegia

Foru, 1 - Tfnoa: 88 89 34

20200 BEASAIN



BANDRES GESTORIA

UAP. Aseguruak

Goierrri Kalea
Tfnoa: 88 12 58
ORDIZIA



GERTU
INPRIMATEGIA

Zubillaga Industrialdea, 9 OÑATI Tfnoa: 78 33 09

**Badugu zeresanik
aldizkarigintzan**

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

28. zenbakia. 92.eko azaroa. Debaldeko alea. Tirada: 2.500 ale. 2.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkartea. Dorre- etxea, 1. pisua (Correos-gainean). Tfna: 889612. 124 posta kutxa Ordizia.

Aldizkari honek Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du.

Erredakzioa: Jon Mikel Arano, Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irastortza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna eta Rosa Amundarain.

Azaleko argazkiak: Aitor Bayo, Juan Carlos Ruiz.

Ale honetako kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Mikel Aramendi, Iñaki Murua, Xabier Gartzia, "Maizpi", Aitor Sarriegi, Xabier Mendiguren, Koldo Zubeldia, Antton Alustiza, Arantxa, Iñaki Hidalgo, Ramon Ugalde, Bixente Barandiaran, Joxe Mari Elorza, e.a.

Gure eskerronak: Gure "sponsorei": publizitatea ematen diguten guztiei. Ampo, Eroski eta Orkli kooperatibei, Goierriko Herrien Ekintza-ri, Goierriko Udal Ordezkariei, "Egunkaria"ri. Era

batera edo bestera lagundu nahi liguke-
tenei, gauzak errazten dizkigu-
zuenoi eta nola edo hala parte
hartu nahi duzuenoi.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa: GERTU KOOP E. (Zubillaga. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Zein da aldizkari irakurriena Goierriin? Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRA iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa

Dei 889612 telefonora.

Idea jatorrenek ere bultzada behar izaten dute.

Udal arduradunek lagundu behar diote
GOIERRITARRAri



Abixua:
GOIERRITARRAren
egoitza lekuz aldatu
da, Postaetxearen
azpitik gainera.
Hobera edo.

GOIERRITARRA

Tfnoa: 88 96 12

1992ko publizitate-prezioak:

Behin:

Modulo bat.....4.000 pzt.
Bi modulo8.000 pzt.
Orrialde erdia.....20.000 pzt.
Orrialde osoa.....40.000 pzt.

ratzen ditugunez, 5 edo 10 zenbakitan beren publizitatea egin nahi dutenek hurrengo deskontua izango dute:

Modulo bat.....3.500 pzt.
Bi modulo7.000 pzt.
Orrialde erdia.....17.500 pzt.
Orrialde osoa.....35.000 pzt.

Prezio hauek zenbaki baterako baliore dute. Urtean 10 zenbaki argitaratu.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria.....Tlf.....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER



ALTZAGARATE JATETXEA

- Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaia, e.a. ospatzeko
- Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Telefonora.

ALTZAGA.



IRVROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA



NAGUSIA,7 • Tfnoa: 88 03 19 • 20200 BEASAIN

ATERPE TABERNA

kultur erakusketak
egiten dira

Tfnoa: 88 46 66

BEASAIN



HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 BEASAIN



KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 5854

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**



Neurriko bizikleten salmenta
konponketa eta montajea

Urdaneta 56 • 16 11 97 ifnoa • ORDIZIA

Lana

- ✓ —Neska euskaldun bat lanerako prest goizetik aritzeko, bulego-soziedadeen garbiketa, umezaintza... (orduka ere bai). 724202, Agurtzane
- ✓ —Mutil bat taberna-pubeko lanerako pronto, 19 urte, soldaduskatik libre, 3 urteko esperientzia. 888381, Lazkao.
- ✓ —Neska batek bulego lanak egingo lituzke, mekanografia, kontabilitate eta informatikan aritua. 889414 tfna.
- ✓ —Linterneritza-lan mota guztiak egiten dira. Aurrekontuak konpromezurik gabe egingo ditugu gustora. 888880, Lazkao.
- ✓ —Neska erresponsible batek goiz eta arratsaldean lan egingo luke. 886867, Sonia

Salerosketak

- ✓ —"Corona" markako berogailu japoniarra salgai daukat. Tfnoa.: 654503.

Etxebizitzak

- ✓ —Etxebizitza salgai Ordiziako Urdaneta kalean: 97 m2. Bi bainugela, gela guztiak egutera aldera, ia guztiz jantzia, ganbara du. Garajea aukeran. 889612, Ramon.
- ✓ —Pisua salgai Ordiziako Kale Berrian, 7-4. Tfnoa.: 888618.
- ✓ —Pisua salgai Lazkaon, 3 gela, sala, sukalde, bainu, trastero, e.a. Egutera dena, 88 m2. Garajea aukeran (2 kotxe) 887858.

Agurrak

"Donostiara neskame joandako neska goierritar bat zara. Etxeko zakur txikia paseatzera bidali zaituzte eta Kontxako hondartzari begira zaudela, zakur horrek hankara pixa egin dizu".

*Inoiz ez naiz egondu
animalin aurka
baina honek ederki
aspertua nauka
nonahi pix egiten du
eta nonahi zaunka
nagusia aineke
errespeto dauka.
Edukatu gabeko
zakur Donostiko
eskarmetatuko haut
bizitza guztiko
arrautzetan emango
dizkit bi ostiko
berri ez didak neri
hankarik bustiko.*

Imanol Lazkao

Argia-ko kalendarriotik

Ordizia-Beasaigo goardiako farmaziak

Azaroak 14-15: Cuesta; **16:** Urbizu; **17:** Atorrasagasti; **18:** Azpilikueta; **19:** Jauregi; **20:** Launaga; **21-22:** Jauregi; **23:** Cuesta; **24:** Arriola; **25:** Urbizu; **26:** Atorrasagasti; **27:** Azpilikueta; **28-29:** Urbizu; **30:** Jauregi; **Abenduak 1:** Launaga; **2:** Cuesta; **3:** Arriola; **4:** Urbizu; **5-6:** Launaga; **7:** Atorrasagasti; **8:** Azpilikueta; **9:** Jauregi; **10:** Launaga; **11:** Cuesta; **12-13:** Azpilikueta; **14:** Arriola. **Neguko ordutegia:** 9,15-13 eta 16-19,30. Larunbatetan: 9,15-13.

Ekitaldiak Ordizian

Bach Musikaldia


Barrena Kultur Etxean: Azaroak 26, arratsaldeko 7,30etan: Purcell **Laukotea. Azaroak 27,** arratsaldeko 7,30etan: Mary Downing (Sopranoa) eta Jose Manuel Azkue (Klabea). **Eliz Parrokian: Azaroak 21,** Oroiht eta Loinaz abesbatzen emanaldia, gaueko 8,30etan. **Azaroak 28,** gaueko 8,30etan: Rilke-ensembelen Abesbatza (Suedia).

Herri Antzokian (Tolosako X Txotxongilo jaialdiaren barruan): Abenduak 2: Bi italiar konpainia: Teatro del Drago, El rapto del Principe Arlo obrarekin eta Teatro Bolognese, Aventuras de Fagiolino-rekin. **Abenduak 3:** USAko Seattle Puppetory, El regreso de Bounce-rekin eta Zumo Negro kanariarrak Tinieblas lanarekin.

IV Gerriko Ikerlan-Sariketa

1. eta 2. Sariketako lanak argitaraturik daude; 3. goak, behar dituzten zuzenketa eta osaketak egin ondoren, datorren urtean argitaratuko dituzte eta 4.a berriz, martxan da, Maizpide Euskaltegia, Goierriko Euskal Eskola eta Lazkaoko Udalaren babespean.

Lehiaketan edozeinek har dezake parte. Ikerlanaren gaia: Goierri dagokion edozein zientzi alorretakoa. Herri mailakoa naiz eskualde mailakoa. Euskarazko lan originala behar du izan eta ez itzultitakoa. Lanen luzera, gutxienez 100 foliotakoa eta gehienez 200ekoa. Idazlan guztiek sinaduratzat lema bat besterik ez dute izango eta kartazal baten barnean seinak; lanak Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartera bidaliko dira 1993ko Apirilaren 1erako. Edozein argibide behar izanez gero, dei 160282 telefonora.



Ormaiztegiko festen egitaraua

Azaroak 20, ostirala: Play-back Zubipe polikiroldegian; Zatio eta Zer habil barrabil taldeen saioa. **21a:** Marrazki lehiaketa, umeen jolasak, e.a.. Bertsolariak Zubipen etga musika kontzertua. **22a:** Musika eskolako umeen kontzertua, txontxongiloak. **24a:** Bertsolaritzari buruzko hitzaldia Kultur etxean. **26a, osteguna:** Ormaiztegiko historia, herriko 3. adinekoen eskutik. **27a, ostirala:** festen hasera ofiziala: suziriak, herri afaria, zezen mekanikoa eta basurde harrapaketa lehiaketak. Txaranga goizalderarte. **28a:** herriko koadrilen topaketa, mozorroturik; haurren danborrada eta jokuak; helduentzako joko zelebreak, sardin-jatea zurrapapotez blai, musika eta zomorrotuen lehiaketa. **29a,** San Andres ziklokros txapelketa; Oroith-txiki abesbatza meza nagusian; hamaiketakoa eskeiniko du Udalak ondoren; pilota partiduak arratsaldean; danborrada gauean eta txaranga goizalderarte. **Azaroak 30a:** S. Andres eguna: 9etan Zanpanzarrak alaituko kaleak, bertsolariak eta dantzariak meza nagusian; ondoren, Bizkaiko Botxeroen saioa eta odolki lehiaketa; herri-kirolak arratsean eta txarangek emango diete amaiera festei.

GOIERRITARRA berriari jarriak

Ezaguna da aldizkari bat izenez GOIERRITARRA euskera mailan gure inguruan kaleratzen den bakarra juxtu antzean aurkitzen denez bere arnas ta indarra denok daukagu beraren alde zertxobait egin beharra.

Elkarriketak, artikulua tartean hainbat argazki, albiste eta berri ugari bertsoak ere bai noski. Atsegina ta erreza guztiz, ulergarria errezi euskeraz bizi nahi dugunontzat ez da etorriko gaizki.

Mikel Mendizabal

Ordiziatik kronika beltzena

Kronika laburra zen. Irailaren 27an, goizaldean, Ertzantzak Ordizian paperik gabe bizi ziren 10 marrokiar atxilotu zituen. Atxilotzeaz gain, atzeritarrei buruzko konpetentziarik ez duen Euskal Gobernuaren morroiek, Donostiako Gobernu Zibilaren esku utzi zituzten.

Historia, ordea, luzea eta latza da. Aurrena esklabu gisara eraman zituzten Afrikatik Amerikara (10-20 milioi), hurrena beste 150 urtetan britaniarren esku egon zen gizakien komertzioa. Hirugarren migrazio aldia, gugandik gertuago dugu, euskaldun asko joan bait ziren, gainerantzeko europarrak bezala Amerikan aberasteko asmoan. Eta, orain, munduan aberats baino pobre gehiago dagoen XX mendean 3. mundukoak dira Europara datozenak.

Europa aurreratu honetan, baina, ate guztiak ondo itxita daude behartsuentzat: pasabide guztiak estuak dira. Orain 500 urte bakarrik zabaldu zituen Espainiak bereak judu eta musulmanak atzeriratzeko, eta Expo eta Barcelona 92ko urte loriatsu honetan ere irtenbide bera aurkitu du.

Bizitzeko eskubidea aldarrikatzeak, baina, eskatzen du guztion zorionerako eta ongizaterako den mundua antolatzea. Paperik ez duten ilegalek badute bihotzik, badituzte anai- arrebarik, badute aberrik. Horregatik, guk, gure herrian erbesteratuta bizi garenek, ezin dizkiegu ateak itxi goseak atzeriratu ditueni. Krisirik badago ekin sortu dutenen aurka, ez pairatzen dutenen aurka.


Goierriko "Zutik"

Kaixo GOIERRITARRA

egiten duzuen guztioi, zehazkiago hilabetekaria ateratzeko ardura duzenoi. Hilabetero jasotzen dut korreoz eta oso gustora irakurtzen dut. (...) Estimagarria da hilabetero zuen lanaren emaitza dohainik etxean izatea. Aldaketa berrien zain nago. "Ba al dakizu...?" saila oso interesgarria da, segi ildo horretatik. Argazkien kalitatea hobetzeak dexente jantziko luke "periodikoa". Baita azal egoki batek ere. Nire lagun batzuei zuen aldizkariaren berri eman diet eta gustora jasoko luketela adierazi dute. (...) Zuen egitasmoak gauzatu daitezela opa dizuet.

Iñaki Bastarrika (Urretxu)

A ze flaxa !



Aralarko San Migelen

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJIK
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Besteek esana

Zer arraroa euskararik gabe...

Euskarak atzerriko hizkuntzetatik asko jaso izan badu ere, jatorrizko berezkotasuna mantentzen jarraitzen du.(...) Beraz, euskarak egiten gaitu euskaldun, eta euskaldun izateak herri bihurtzen gaitu. Areago, geure kultura honetan heitzen bagaituzte, indoeuropear hizkuntzetatik nagusitu zaigun mundu ikuskera zientifiko hut-saren krisialdiari erantzuteko adore eta grina izango dugu. Pentsatzen dut Europako Herrien Elkartearen egin dezakegun aportaziorik garrantzitsuena geure euskal kulturaren sustailetan daramagun indar horren sozialitzeari geuregan leku egitea izan daitekeela. Bestela esan iezadazue nola iraungo dugun euskararik gabe euskaldun, eta euskalduntasunik gabe, herri.

"Egunkaria", Luis M. Barandiaran
(Beasaingo Alkartasuna Lizeoko
Zuzendaria)

Nekazarien aldeko elkarteak

Goierri Garaiko Nekazal Makineri Elkartearen helburua baserritarrok etxean dugun traktoreaz egin ezin ditzakegun zerbitzuak eskeintzea da, baita udalei beraien eginkizunetan laguntzeko ere, dena presio egoki batean. Urtebete pasatxotik makinatxo bat lan egin behar izan da: baserritarrei ideia honen berri eman eta aportazioak jaso; legeztatzeak jario guztiak egin; laguntzak bideratu Mendi Nekazaritzatik; bi traktorista aukeratu; traktore eta lanabes egokienak aukeratu.

Gestio guztien berri hilero hilero eman izan da bileraz bilera, horretarako herri bakoitzeko arduradun bat aukeratu zelarik. Ez da bide erreza izan. Gure artean bazen nahiko zalantza proiektu hau aurrera eramateko gai izango ote ginen, baina ilusioak eta beharrak bultzatuta lortu egin dugu. Udalek ez zuten argi ikusten zergatik parte hartu behar zuten laguntzetan, baina poliki-poliki jabetu dira horrelako zerbitzu baten premiaz. (...) Gaur egun esan dezakegu Goierri Garaiko baserritarrok gai izan gara eta urtebeteko epean 50era iritsi nahi genuke; ia 20 milioietako makineria erosi da azaltzen diren traktore eta aperoz osatua; bi traktorista kontratatuta dira lanak txandaka egin ahal izateko, beraien baserrietako lana utzi gabe...

Elkarte honen atea zabalik daude baserritar guztientzat, horretarako kuota bat ordaindu behar delarik (orain arte 50.000 pzta) eta kideek zerbitzu merkeago batez gain lehentasuna izan dute (beti ere eskari eta lan antolaketa- ren arabera).

"Makilari" (Gabiriko Aldizkaria), 1. zenb.
Inaki Zumalakarregi.

Sarajeboko haurrak

Ekimen txalogarria iruditzen zaigu Ordiziako Udalarena. (...) Bakar-bakarrrik, kezka apur bat sor erazten digun detailetxo bat irakurri dugula egunkarian. Alegia, herriko denda eta komertzioari eskatuko omen zaie ahal dutentxo-a aporta dezaten. Horretan ere ez daukagu dudarik. Badakigu eskuzabal jokatuko dutena, baina estilo aldetik ez da egokiena Udalak harturiko erabaki baten beste batzurengandiko dependentzia handiegia izan dezan. Guztia- rekin ere, pozgarria da jendeak erakutsi duen sentiberatasuna. Sarajebora mugatzea, horixe txarra! Somalia eta mundu zabaleko beste hainbat lekutara begiratzeko ere begiak berdin-berdin ireki behar genituzkeela iruditzen zait. (...) Ordiziako Udalari ezer kendu gabe eta bere inizatiba eskertzearekin batera, zera esan behar da, alegia, udal mailan konpontzeko prolema handiegia jotzen dugula. Goragoko instantziak inplikatu beharko lirateke. Baina Mendebaldeko gobernu "demokratiko" hauen portaera "jatorraren" berri jakinda, esaidazue zer atarramendu egin dezakegun! Bosnian, dirudienez, ez baitago petroliorik! Mundu zabaleko abeleraren aurrean nire inpotentzia eta ezina ikusita, azkazalei koskaka ari naiz. Nire aukera bakarra karitatea egitea da eta horrek barrunbe guztia asal- datzen dit.

Rufino Iraola, "D.V", 92-X-25.

GOIERRIKO ZURAK, S.L.

Inportazioko zur-biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
88 80 23

20210 LAZKAO



Zumalakarregi, 1
Tfnoa: 88 79 63
ORDIZIA

Buruazaleko
tratamenduetan
azken teknologia:

- Laser
- Kiromasaia
- Digitopuntura
- Bibraterapia,
- e.a.

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K , c . B .

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN



GRUPO VITALICIO
SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUAU

Unanue Enparantza, 3 • Tfnoa: 16 04 86



**GOITGI
OKINDEGIA**

Etkezarreta, z/g.
Tel. 88 12 11
ORDIZIA

Ba al dakizu...?



GIZARTEA

—Makina bat hizpide ematen ari da. Aurreko zenbakian Beasaingo alkateak zioen bezala, Etxegarateren desdoblamendua 97.ean egitekoa zen. Gero atzeratu egin du hori Gobernuak. Hurrena N-1ko Etxegarateko bikoizketa eta Maltzaga-Urbina batera eraikitzeak aukera aztertzeak zen Jaurilaritza. Goierri eta Tolosaldean positibotzat jo zuten Jaurilaritzaren erabakia. Nahiz eta Maltzaga-Urbina N-1a baino lehenago egin, biak egitekotan geroago. Asuntoka da Debaldeko alkate eta alderdiek bereari eusten diotela eta presio latzak egiten ari direla. Sudupe diputatuak ez du uste faktiblea denik bi proiektuak batera egitea eta Biltzarren esku uzten du bien arteko aukeraketa. Erredakzioa isterakoan ez dakigu zertan geratuko den auzi hau. Denbora testigu.



—Beasain eta Ordizia tarteko N-1aren desdoblamenduak sortu duen tunel berria guztiz zulatua dago, dagoeneko. 280 metro ditu tunel paralelo honek. Lanak ez dira bukatuko datorren urteko lehen hiruhilabetealdia arte.

—Matrikulazio errekorrekin hasi du azken kurtsoa Goierri Lanbide Eskolak: 1.415 ikasle. Zentrua 600 ikaslerentzat diseinatu zen hasiera batean. Gaur egun soldadura zentzurik hoberenetarikoa da EKA. Ikasle, langabe, e.a. ikastaroak ematen zaizkie. Ekipamenduan aurrerapausuak eta inbertsio berriak egin dira Goierri. Jesus Mari Gaztañaga du zuzendari.

—Orain hilabete batzuk hainbeste ixkanbila sortu zuten bi mahaiak Ataunen daude. Berriztatuta bueltatu dituzten mahai hauekiko mozio bat sartu zuen HBk Udalbatzan.

—Erabat desilusionatuta bueltatu dira Nepalen abioi istripuz hildako Begoña Urbina beasaindarraren eta Mikel Cristobal ordiziarren familiartekoak. Hauen gurasoek ez zuten hitz txarrik inorentzat. Ez zuten ezer ikusterik izan, ez gorpuak ez hildakoen gauzik ere. Hildakoen familien artean ezjakintasuna zela nagusi, adierazi zuten. Gorpurik gabeko hileta elizkizunak ospatu ziren jendetza handien artean Ordizian eta Beasainen.

—Ertzantzak eskupetak atzeman zizkien bi ehiztariei Itsasondan, belatz bati tiro egin eta zauritzeagatik.

—Ordiziako ferialekua, Plaza Nagusia, 1924.ean eraiki zen, ferianteei babesa ematearren. Udal aparejadoreak aurkezturiko proiektuak dioenez, zorua egoera nahikoa txarrean dago eta Udalak Plaza berrabiltzea erabaki du ahobatez. 16 milioitik gorako aurrekontua du eta Foru Diputazioaren dirulaguntza ere espero da.

—Izquierda Unidak aurkezturiko proposamena ontzat hartu zen herri berean. Jugoslavia-ohieko umeak hartzea negu-partea hemen pasa dezaten, alegia. Ordiziako Udalak bertako herritarrek 50 ume hartu dezaten kanpaina bat egingo du.

—Zabor eta hondakin urbanoen bilketa amankomunatua "Fomento de Construcciones y Contratas" etxearen esku uztea erabaki du Sasieta Mankomunitateko Batzorde Errektoreak. 155 milioietakoa da salneurria eta bilketa amankomunatua datorren urtearen hasieratik aurrera egingo du etxe horrek. Sasieta Presidentea den Josune Agirrek esan zuenez, zerbitzu hobea eta handiagoa eskainiko da aurrerantzean.

—Iragan urriak 25ean beatifikatua izan zen Idiazabalgo beste herriko-
seme bat: Lazaro Mujika Goiburu. 1867.ean jaio zen Lardizabal-Txiki baserrian; Juan Mari zuen jaiotze izena eta hargin zela, etxek kanpo lan egin du, eta, amari eman beharreko aurreratutako diruak lapurtu zizkionean erabaki zuen S. Juan de Diosen ordenean sartzea. Espainian zehar gartzel eta sikiatrikoetan lan egitea tokatu zitzaion. Paracuellosen hil zuten 36.ean.

—Ordiziako N-1eko sarrera-ingurunekeo industriari errekamazioak babestea erabaki du Udal Gorporazioak, HB, EE eta EAren aldeko botuekin.

—Gipuzkoako 25 herrietan iturriko urik edaterik ez da izan egun batzutan. Goierriko Itsasondo, Ordizia, Idiazabal, Ezkio Itxaso eta Ataunen hain zuten. Azken honetan astebete baino gehiago egin dute urik gabe.

—Ordizialdean hainbat lapurreten erantzuleak izango liratekeen hiru lagun, atxilotuak izan ziren eta Martutenen gartzeleratuak.


—"Beasaingo Odolkia" Sevillako Expon izan da, Euskadiko Pabilioian. 200 kilo odolki banatu ziren.

—Urbanizazio berriko eraikuntza batek sekulako gatazka sortu zuen herrian Santafeak baino lehenago. Nahiz eta legezkia izan, zaldibitar batzuk akatsa hor dagoela diote.

JOAKIN ALDANONDO

Michelin Zerbitzu Ofiziala

- ✓ Neumatiko eta "Ilantak"
- ✓ Ibilgailuen zuzenketak
- ✓ Engrase, olio aldaketa eta mekanika



**ERROTA POLIGONO
2013 IDIAZABAL**

Tfnoa: 80 02 57



KULTURA

—Oiartzunen ospatutako Kilometroak 92 ekitaldiak Ordiziako Jakintza Ikastolari pasa dio testigua eta ikastola hau izango da datorren urteko saioa antolatzeke ardura izango duena. Orain 15 urte Beasainen sortutako ekimen hau ez zen oraindano errepikatu Goierrin. Bazeuden motibu bat baino gehiago Kilometroak gure eskualdera ekartzeke; horien artean, eskolaurreko erakuntza berria datorren urtean irekitzekoa dela. Horrek ahalegin handia suposatzen dio Jakintza Ikastolari eta ekitaldiaren etekinak zuloa estaltzen lagunduko duen esperantza dago.

—Beasaingo Udala eguberritarako udal-aldizkari bat martxan jartzea eztabaidatzen ari da. Aldizkaria lauhilabete-karia izango litzateke, udal-informazioan oinarritua egongo litzateke, bi hizkuntzetan.

—Xabier Mendiguren beasaindar idazleak prestatutako "Pernando bizirik hago oraindio" Itsasondoren eta Amezketan (Pernandoren jaioterrian) antzeztu zen urrian.

—Ikastolen Elkarteko Mikel Mendizabal eta Antton Kazabonek, Bertsolarien Elkartarekin batera "Bertso Eskola" deritzon ariketa-liburua kaleratu dute.

—Ikastolen Elkarteko Mikel Mendizabal eta Antton Kazabonek, Bertsolarien Elkartarekin batera "Bertso Eskola" deritzon ariketa-liburua kaleratu dute.

—Legorretako Kultur Etxearen obra

egiteko adjudikazioa egin da dagoeneko.

—"Mocedades"eko Amaia Urangak "Lilura urdinak" izeneko euskarazko LP-a kaleratu du. Disko hori egiteko laguntza asko izan ditu. Kurioso da: Segundo Galarza segurarraren Lisboako estudioan laguntzaile portugesekin grabatu du "Fado bat" kanta.

—Aurreko alean eman genuen primizia. Maizpide Euskaltegian ibilitako Hiromi Yoshidak eginiko euskara-japoniera-euskara hiztegia kalean da Japoniako Daigoku Shorin argitaletxearen eskutik. Antton Idiakez eta Pello Aranbururen laguntza izan zuen horretarako. Giroa, "Lazkaoko poteoak". Kazulo Ogumak hartu du Hiromiren erreleboa Lazkaon.

—Atzeritar gehiago ere badira ordea Maizpiden: Ludo Docx flandiarra (ia lazkaotar) denboraldi ederrak egin ohi zituen bertan; "Nafarroa Oinez"eko bideoan ateratzen ziren Suzuko Tamuro bertan izana da eta lazkaotarra den Josef Ramanhi ere, (ETBko langilea). Irlandarrak, flandiar gehiago, amerikarrak, argenti-narrak, (bat irakasle da egun) eta nongorik ez da egon edo dago Lazkaon? Hara gure herri kosmopolitena!

—10 urtez segidan etenik gabe antzeztu ondoren, iazkoan ez zen "Jentilen etorrera" gogoratzerik izan. Aurten goan berpiztea lortu da, ezinezkoa bazirudien ere, Joxe Begiristain "DV"ko kronistak zioenez. Lagun talde bat ari da horretan. Azaroaren 15eko iluntzeal-



dean izango da festa egitarauen barnean. Barricada taldearen kontzertua ere ziurtatua dago Ataunen.

—Urriak 17an hasi eta azaroak 14erarte zintzilik dago Jose Luis Zumeta usurbildarraren erakusketa Beasaingo Aterpe tabernan. Aralar saila erakutsi du. Ez da sail izugarria, baina bai eskertzeko modukoa Zumetaren erakusketa hemen izatea.

—Idiazabalgo "Zirika" Irratia, berriro martxan larunbatero. FMko 99,3 frekuentzian entzuten ahal da.

—Dakikezuenez, Ataun San Martingo elizako organoa Gipuzkoako baliotsuenetakoa dugu. Datorren urtean berrabildua izango omen da.

ARGIAren EGUTEGIA

1.000 pzt. egurrekin
800 pzt., gabe.



ARGIA EGUNA (Azaroak 22a)tik aurrera, GOIERRITARRA deitu eta izen-helbideak emanez gero, Egutegia eskuratzeko aukera izango duzu gure bulegora etorritik, Ordiziako Dorre-Etxera edota etxean jasoko duzu postaz.

Dei: 88 96 12ra



ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

- LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
- ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

Tertzerakoak balira, sikira!

Bazen garai bat, bizitzan trenez joateko, tertzerako biletea erosita segundako departamenduan eseri eta, gehienetan bidaia guztian primeran joaten ginenekoa. Esanen litzateke dirufaltak entendimenduan argi egiten zigula edota, esaera zaharraren hitzak honetaratuz, goseak erne jartzen zizkigula begiak. Aspalditxotol, ordea, ederretan ederra genuen bidaiatzeko modu hura irauli eta itzulipurdika jartzeko ahaleginak egiten ari gara eta, okerragoa dena, ez punta eta ez ipurdiko ahaleginak egiten. Diruz osatzearekin batera, entendimenduz urritu ez ote garen nago. Diodanaz jabetzeko aski bekik liburu zein telebistarekiko gure zaletasunak zertan aldatu eta zilipurdikatu ditugun azaltzea. Dirua bon- bon darabilgula erakustearren edo, telebista, bideo eta abarrez josi ditugu etxeak, baina, gerora ikusiko dugunez, ez diegu aparailu horiei beharko litzatekeen etekin eta probetxurik ateratzen. Liburuek, berriz, apaindu bikaina ematen diete gure etxeetako armairu eta liburutegiei, baina gizarte honen irakurtzeko zaletasunak gainbehera latza egin du. Letra usaina duen guztia zokoratzeko joera hartzen ari garen heinean, kaxa tuntunetik datorkigun edozein txaldankeria irensteko prest gaude itsu-itsuan.

Ez dut Euskal Gobernuak Kultur Sailak liburu-irakurle eta telebista-ikusleez dauzkakeen zifren berri, baina horien faltan, Espainiako Kultur Ministraritzak gai horretaz argitaraturiko inkesta baten emaitzak berez mintzo direlakoan nago. Inkestaren arabera, 90.ean espainiarren %85ak telebista egunero ikusten zuela

aitortzen zuen. Ez unetxo batean edo bestean ikusi; ordea, jende horrek batzbeste egunero hiru ordu inguruz eransiten baititu begiak pantailan. Baina, horietatik zenbatek eramaten ditu begiak liburutara egunero? 83.ean espainiarren %25ak egunero irakurtzen omen zituen liburuak. 90.ean, aldiz, 83.eko irakurleetatik 3tik 1 galdua zen (telebistaren atzaparretan galdua, ene ustez), hots, 90.ean, %8 jaitsia zen liburu irakurlekopurua.

Aipatu treneko bidaia primerakoa zen bezalaxe, behingo hartan jendeak irakurtzeko zuen gosea ere primerakoa zen. Bat baino gehiago ezagututa nago gose hura asetzeko dirurik eduki ez eta liburuak ohostu beharrean aurkitzen zena. Irakurle porrokatu haietatik, zenbat ezkutatu ote dira? Haietatik zenbat eseritzen dira gaur tb.aren aurrean "Videos de primera" edo "Ole tus videos" bezalako memelokeriak ikusteko? Baina zer arraio ote da "primerakoa" bideo horietan? Ene iritziz, horrelakoak irents ditzakeenak aise irentsiko litzuke apoak eta suge biziak ere. Honatx jende askok gogoz baino gogozago ikus ditzakeen "de primerako" bi adibide: badoa hor mutiko koxkor bat korrika txikian ez dakit norantz eta, halako batean, konturatu gabe platano-azal bat zapaldu, labaindu, eta hori hartu duen muturrekoa, hori! Bideo-ikusleak, hori ikusita, barrez lehertzen hasiko dira noski. Baina, nahi baduzue, amona gajo bat ere izan daiteke bideorako gaia. Amonari gona erori eta ipurdia bistan geratu ez zaio ba? Horren aurrean, telebistako ikusle

"argiak" nola eutsiko dio ba barreari? Aipatutakoez gainera, "de primera"koak ere izaten dira telebistako hainbat "lehia-keta"... Zakurraren putza baino gutxiago balio duten programa horiek baztertuta, primerako programak hautatzen asmatuko bagenu, sikira!

Zenbat eta informazio gehiago eduki, orduan eta hobe dela diotenen aurrean, desinformazio beharra dugula dakusatanik garbiro. Areago, irudi batek mila hitzek baino gehiago balio dezakeela uste dudan arren, gure gizarte hau irudiz gainezka eta oka eginda dagoelakoan nago. Denok dakigunez, edozein umegorrik, hiru urte dituenerako, telebistan Egipto, Txina eta baita buruko neuronak ere ikusi ditu. Ume horiek hamalau urtetara iritsi eta inor gutxiak daki non dauden El Cairo edo Pekin, eta inor gutxiagok emango dizu neuronei buruzko nolabaiteko azalpenik. Hitz horiek ez dira hitz hutsak jakina, hainbat adituk hezkuntzaren munduan egindako ikerkuntzen ondorioa baizik. Hango eta hemengo ikerkuntzek garbi frogatzen baitute hezkuntzaren maila, bai heziketa orokorrean eta baita unibertsitatean ere, amildegian behera joan dela mende honen erdialdetik honantz. Itxurak direnez, irudien belardian ere ez da dena lore hutsa izaten. Hargatik, abiadura azkarreko irudizko trenetik jaitsi eta abiadura moteleko letrazko trena (ustez tertzerakoa, baina izatez primerakoa) hartu beharrean gaudesarrixeagotan.

Xabier Gartzia



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

10 Goierritarra

Bodegon
GOIERRI
JATETXEA

Kale Nagusia, 20 BEASAIN
Tel. 88 00 00

Mintzatuko gara klase partikularretaz?



Igor Eguren, 17 urte, beasaindarra, ikaslea.

Ni joaten naiz laguntza bat izateko klasetik kanpo. Hartzen ditudan partikularrak ingelera eta matematika dira. Zergatik noan? Bada, okerren daramatzadan ikasgaiak hauek direlako. Istitutuko beste edozein ikastordu bezalakoa da partikularreko ordua. Egokiagoa ordea, ze jende gutxiago gaudenez bertan, bada atentzioa handiagoa delako gureganako. Prezio onargarriak dira eta tira, hor ibili beharko dugu jira eta bira.



Aitziber Amundarain, 17 urte, ordiziarra, ikaslea.

Nik ere matematika eta ingeles-klaseak ematen ditut. Klaseko esplikazioekin nahikoa ez dut eta horrezaz aparte Istitutuko azterketetan eskatzen diguten maila gehiegizkoa delako noa partikularretara. Denetara zortzi ordu ematen ditut horretan asteen zehar. Lau materia bakoitzarekin. Eguerdiko hiruretan atera Istitututik eta hiruterdietan partikularrera! Larri ibiltzen naiz, korrika eta presaka bazkaldu behar.



Alizia Gomez, 17 urte, ordiziarra, ikaslea.

Neuk ere berdin, ingelesa eta matematikak. Hogeitamar ordu Istitutuan eta zortzi partikularretan nik ere. Halere nahikoa konpentsatuak dauzkat eta ez nabil Aitziber bezala. Partikularretara joateko arrazoiak, zerean bilatzen dut: klaseetan ematen diren ikasgaien maila eta azterketetan eskatzen denaren arteko diferentzia latza dela. Partikularretara joateak lasaitasun bat ematen dit, klasean ematen dena ulertzeko errazten baitit.

Kolaborazioa

Partikularra: laugarren adarra?

Ikasturte berri baten aurrean gaude. Itxura guztien arabera, gaur egungo erdi-mailako irakaskuntzan ari diren neska- mutilak seriotasun haundiarekin ari dira prestatzen beren buruak etorkizunerako.

Batxilergoa ikasten ari diren zenbait geletako ikasleen %95a klase partikularretara joan ohi da, ordea. Horrela esanda, badirudi zerbait ez dihoala behar bezala. Ikasleak ote dira gaizki dabilzanak?

Beraiengana jo dugu, eta, noski, eurak ez dira errudunak:

—**"Klasean emandako esplikazioak ez dira nahikoak; gaiak hobeto ulertzeko 'parti'-ra joan behar duzu"**, diote. Edota,

—**"Askotan irakasleak 'pasatu' egi-ten dira: maila bat eman eta beste bat eskatu"**.

Asuntoa da zientzietako asigaturetara-ko eskatzen direla partikularrak, Mate-

matikak, Fisika, Kimika. Latinezkoak ere ematen dira baina gutxiago, udan, Lazkaoko Benediktaretan.

"Gelako guztiak partikularrera joaten badira, asignaturaren maila asko igoko da, ez?" galdetu diegu. —**"Bai, irakasleak maila altuagoa ematen du, eta atzeratuta ez gelditzeko, bada, mundu guztia apuntatzen da partikularrean; gainera ohitu egiten zara eta klasean ez duzu galderarik egiten, partikularrean galdetuko duzula-eta..."**, erantzun dute.

Ingelesarena beste arazo bat da. Ia edozein lanpostu lortzeko ingelesaren beharra eta eskaera ikusten dute ikasleek. Badira, halere, eskolakoak aprobateko lain izateko apuntatzen direnak. Baina normalean etorkizunari begira joaten dira klaseotara; ez da arraroa 9-10 urterekin partikularrean ingelesa ikasten den haurra, eta askok eta askok aprobetxatzen dute uda Ingalaterra edo Irlandan ikastaro intentsibo bat burutze-

ko.

Baina partikularretako ikasgai tradizio-nalak 'Mate' eta Fisika dira. O.H.O.ko 7. eta 8. mailako ikasle banakak ere hasiak dira joaten. Gero, Batxilergoan, mundu guztia, ez dakigu beldurragatik ote den, edo zergatik den, baina kurtsoa hasi aurretik ia gehienak apuntatuta omen daude partikular batean.

Klaseak garestia ote diren? Inkesta zehatzik ez dugu egin, baina asteke hiru ikastorduk 6.000-8.000 pezeta egiten bide dute hilean. Lanpostuak ere erruz sortzen dira, aidanez. Ordizia batean bertan, galdeketa zehatz-mehatzik egin gabe, Oianguren Istitutuko ikasleek esanda, 20tik gora maisu- maistra partikular ba omen dira.

Ikastola-Lizeoak, Eskola pribatuak eta Istitutu publikoak hiru. Laugarren adarra edo sarea, partikularrak?

Ramon Ugalde
(Irakaslea)

Modaren azken
joerak

MARTIN

Ileapaindegia

Ordizia, 4 • Goen 1 • Tfnoa: 88 86 55 • 20240 ORDIZIA

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA



Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03



SOLOZABAL
AUTOESKOLA
PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia

- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etkezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA



auto-eskola ORDIZIA

LA UNION Y EL FENIX ASEGURAOAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA



Zure Argazki

Urdaneta 18 • Tel. 889325 • 20240 ORDIZIA



**TXALUPA
ERRETEGIA**

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA



BRICORDIZIA

- BRIKOLAJEA
- ENMARKAKETA
- Eta zure ideiak ...

Goierrri, 21

TEL. 160416

ORDIZIA

**Eraikuntzak
P. ARMENDARIZ**

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

PERTSONAI BITXI BAT ZALDIBIKO DEPOSITUTAN

Joakin Izagirre: Sugeen mizto eta muxarren gibel-bila

Garai batean eta orain ere, han dago Zaldibiko terrenotan Depositua deritzan ostatua. Patxi Iraola bert-solariak, adibidez, asko maitatzen du leku eder hura. Etxea Beasain-go CAF enpresarena da. Tontorrean dago eta beheko zentrale elektridora dihoazen ur kanalak eta abar zaindu ohi dituen goarda bizi da bertan: Joakin Izagirre.

Lekuak merezi du apartekorik. Esan beharra dago zentral horrek ase dituela Beasaingo Fabrika Haundiko argindar behar gehienak edo. Zentralean, kanalean eta gaineratikoetan berrikuntza galantak egin dira oraindik asko ez dela. Zentrala berritu da, dena automatizatu da, kanalarri altuera handiagoa eman zaio..., lehena-

goko itxurak eta gauzak gordez: zentralaren estiloa, barruko panel bat zeinean euskara hutsean mende haserako

Diputazioaren aholkuak datozen "elektra-indarraren" arriskuak gainditzeko..

Baina goazen gure pertsonaia-ekin. Oso ezaguna dugu Goierri parte honetan. L.P.Peña Santiago eta horrelako jendeak ezagun dute, eta nork ez? Bere gurasoak bertan lan egiten zuten, bera han jaioa da. Zaldibitarra da eta jubilatutik dago, 1950 urtean goardalanetan hasi, 35 bat urtetan aritu eta gero. Badu makina bat kontu zahar Joakinek estraperloarekin. Aspaldiko kontuak dira estraperloarenak, gerra ondorenekoak. Joakin lanean hasi zen garaikoak. "Artano (bertako pertsonai bat,



Joakin Izagirre

artzaia, bertsozalea...) ibiltzen zen hemendik estraperloarekin. Nafarrora joaten eta handik mendiz garia, patata, artoa eta baba ttikia bezalako gauzak ekartzen zituen itzulizko bidean isilka. Izugarrizko arriskuak pasatzen zituen".

Goizeko bostetan jeikitzen zen Izagirre lanerako. Lehenengo lana zentralerako urak neurtu eta telefono batetatik zentralera deitu neurriak emateko, zentralekoek jakin zezaten zenbaterainoko ur-indar zeukaten Kanaletako errejilak garbitu eta beste lan asko egi-tea suertatu izan zaio zaldibitarra-ri. Orain, ordea, ez du bizi besterik egiten, bertantxe, erretiratu zenez gero. "Hementxe ba, bazkaria prestatu-eta". Bitxikeria orain dator: sugeen miztoak eta muxarren gibelak lortzen saiatzen da Joakin. Zertarako ote dituen? "Bueno ba, sugeen pozoina mizto-arekin batera laborategi batera eramaten dizkirate eta han antibiotikoak eta gisakoak egiten dituzte".

Koldo Zubeldia



Zaldibiko zentrala

ORMAIZTEGIAR POLITIKOA, EUSKAL EZKERRA (EUE)-KO BURUETAKOA**Xabier Gurrutxaga: "Euskal hiritarrak du bere etorkizuna erabakitzeke ahalmena"**

Zuzenbideko Fakultatean 2. kurtsoan matrikulatzera zihola harrapatu dugu goierritar politikorik entzutetsuena. Magisteritza egina aspaldi, Pedagogiako zubi-ikasturtea bukatuta duela, 'egunero ikasten delako' esaldia bere egi-ten du. Luze eta zabal hitzegin dugu Ormaiztegiakoarekin.

Bizitzak irakasten diona eta akademi-koa. Bi karrera. Lehena aberasgarriena, baina zuzenbidea zuen gus-
toko, ia amets. Magisteritza 19 urterekin bukatu eta geroztik ez zuen ikasketa ofizial gehiagorik egin. Maisu, Ordiziako Ikastolan hasi zen lanean, 74.ean. Jokin Mujika gimnasia-ikasker izana pozik aitortu izan du beti.

Goierriko Urteak

Ikastolan hasi eta segituan eraman zuten Martutenera. Bere hitzetan, garai hartan goierriar piloa zegoen politikarekin konprometitua; frankismoan arriskuak zekartzan horrek. "Nik uste Goierri askatasuna eta demokraziaren aldeko sorleku garrantzitsua izan dela. Egunen batean gure Historiak eskertuko ditu nolabait hainbat goierriar", dio komentaturik. Gurrutxaga lehenagoko ETAKoa egin zen beste zenbait gazterekin: Tomas Mujika, Arriarango 'Pitxitxi', Juli Garmendia... Ikusi zuten politika konpromisurako egokiena hori zela. Lehenbiziko saioan sei hilabeteko gartzelaldia eta gero beste sei. Oso gogo onez gogoratzen ditu Goierriko urteak: mogida izugarriak, Ordizia zen gunea. Bere bizitza pertsonalerako asko balio izan diotelakoan dago. Baina arantzak ere baziren: goardia-zibilek begia lehertu zioten Bentaundin bere anai Joni 77-inguruan. Begi-galtze horrek askomarkatu zuen Xabier. Oso hurbil dauzka oraindik aipatutako anai-lagunok.

Gogoratzen du zenbat eztabaidatzen zuten. Zalantzak, sozialista izan nahi, baina baita abertzale. Ezkerreko ala abertzale izate kontu horiek kezka handiarekin bizi izan zituzten, argumentuak bai baitzituzten

ezker eta abertzale zirela esateko. Goierriko jendeak, Erakundean unibertsitariak ere bazirela frogatuz, ukatu tipologia bat eta bultzada handia eman zion teoria berriei. Hori diosku berak, laburtuz.

G.- Eta segidan EIA sortu zenuten. Goierri abangoardia izan zen horretan ere.

X.G.-ETA m/pm zatiketa gertatu zenean ni gartzelan nengoen. Pm-rekiko nire posizionatzeak geroko bidea markatu zidan. Gartzelatik irten eta pm-en VII Biltzarrera joan nintzen. Han apostu garbia egin genuen: desdoblamentua. EIA sortu, pm-ek segi zezala. Pasatako urteekin konparatuta, bazen erreflexio inportante bat, borroka armatuaren muga. Estatuko egoera aldatzeaz zegoela eta garbi ikusi genuen tresna berri bat behar genuela: ETAREN eskutik soilik ibiltzea muga askorekin ibiltzea zela. EIAren sorrera zuzenean bizi izan nuen eta Goierri ezagutzen genuen jende guztia bildu genuen. EIA, gaurkoaren alde-rantziz, orduko bertako erreferentzia nagusia zen. Sekula ez dut ahaztuko datu bat: 77.ean-edo, KASen lehenbiziko mitina antolatu genuen Ormaiztegiako polikiroldegian. 3.000 konbite banatu genituen baila-da guztiko enpresetan, klandestinoki. Arrakastatsua izan zen. EIAren proiektua, 81. arte oso garrantzitsua izan zen.

- EEren hamaika urte eta gero, balorazio bat egingo?

81. arte Ordiziako Jakintzan jarraitu nuen. Orduan eskatu nuen eszedentzia. EEen jardun nintzen irakaskuntza-mailarako liberatuta, gero parlamentario, e.a. 11 urte libe-

ratuta, beraz. EEren balorazioan, gure lehen oinarri teorikoak, hau da, E.H.-an behar genuela bertako ezker bat, abertzalea eta ez kontrakoa (besteak beste, uste genuelako ezin zitzaiola utzi abertzaletasunaren gidaritza PNVri), uste dut indarrean dirautela oraindik. Bertako ezker eta bere proiektu politikoa Euskadiko proiektu nazionala bihurtzea. Inguruan indarrak bilduko dituen proiektua, hori indarrean dagoen zerbait da. Gure praktikak erakutsi digu, ordea, EEk mugak zituela, ez dela bete paperean jarritakoa.

- Baina ezker abertzalearen familitik irten zinetela zirudien. Egia da sektore espainolista ere hor zela.

- EE proiektu preziatua izan dela uste dut hemen besteen partetik. Ez dut ukatuko ezker abertzaleko beste adarrak (HB, e.a.) eta geu gorrotatu ez garenik. Baina beti 2. proiektua zen gurea, ez zuen lortu hiritarren 1. proiektua izatea. Errua gizartean ez baino guk egindako politikan egon liteke. EEren proiektua, baliagarria zen eta da, baina akatsak azaldu ditu EEren eskutik. Proiektu bateko politika proiektu bereko jendeek egiten dute. Abertzaletasunarekiko posizio anbigua eraman dugu, zenbait adierazpenekin jendea argitu ordez konfunditu dugula. Gero, nere ustez, EEren baitan kontradizioak bazeuden, bi joera zirelako zen. Oreka bilatzearen, pausu batzu ondo eman ziren, baina hanka

sartu zen halaber. Hankasartzerik handienetako bat, entenitzea EE zela E.H.-a normalizatzen zenerako asmatutako proiektua. Normalizaziorako zure eskua bota, lan egin, normalizazioruntz geroz eta hurbilago eta EEk geroz eta presentzia gutxiago.

- Arrazoiak bai, baina indarrak ez.

-Hori duk. Arrazoiak bai, baina ez zigutela ematen hiritarrek. Uste dut gure anbiguedadeak gure aurka jokatu zuela. Hemen gai horrekikoak, ez radikalak eta pragmatikoak, baizik eta posizioak garbi mantendu

behar dira, zer eta nola nahi dugun. Gure akatsa izan da esatea: EE abertzaletasun eta sozialismoaren arteko zubia da. Baina zubian inor ez da gelditzen, pasa egiten da jendea, ezkerraldera, eskuinaldera. Diskusio hau da azken urte t'erdian daramaguna.

- Gero dekantatzen hasten zarete: Añamendi/Renovacion, EUE eta besteak...

- EEren IV Kongresuan guk garbi planteatu genuen azken hauteskunde autonomikoetako emaitzak kezkarriak zirela. Horren arrazoia ez zegoela gestio politikoa, jiro nazionalistean.

- Sinisgarria egin zaie gainontzeko abertzaleei hori?

- Baietz uste dut. Gure momentu honetako proiektua da euskal gizarteak izan ditzala erreferentzi nagusi bezala bertako indarrak, bai ezkerrean, bai eskubian. Horrek esan nahi du, bertako indarren apostua egitekotan, gure eguneroko politikan lehentasuna dutela bertako partiduek. Alde horretatik nik apustu egiten dut eskubiko esparruan alderdi abertzale bat egon dadin eta eskubiko horri beste hainbeste eskatzen diot, ezkerreko alderdia abertzalea izan dadin posibilita dezala. Gobernu osaketan lehentasuna abertzaleok behar genuke, ezker-eskubi. Kriterio horren arabera egin genuen Gobernu eta Diputazio nazionalisten defentsa.

- Horrek esan nahi du naziotasuna-eta aldarrikatzen dituzuela.

- Erabat. Eta naziotasunaren oinarria, autodeterminazioa. Euskal hiritarrek dute ahalmena bere etorkizunerako nahi dutena erabakitzeke. Eguneroko politika egiterakoan diogu hemen abertzaleak gehiengo direla, baina ez diogu errentabilitaterik ateratzen herri honetako %70-80ko abertzalego horri. Horrek esan nahi du gehiengo soziologiko hori politikoki horrela espresatu behar dela. Eta Gobernua, Diputazioa, Donostiako Alkatetza abertzaleen eskutan egon behar luke. Zer gertatzen da hemen? PNVk beste aukera bat egin du: abertzaletasunaren zilbor-hestea bera kontsideratzea. Orduan nahiago du beste abertzaleadierazpenei lekua utzi ordez PSOerekin joatea. Harreman txarrak ez ditugu baina PNVren interesak eta gureak ez datoz bat. Gure apustua da forma politikoa ematea zerbaiti, abertzale eta progresistak direnak

bil daitezen.

- Hortik dator EArekiko apustua?

- Garbi-garbi. Ni seguru nago E.H.-n korronte progresista hiritarren artean maioritaria dela, kontserbadorearen aurrean. Hori hala bada, zergatik ez konberjentzia? EA, HB eta gu gaude, elkar lehian, espazio baten bila. EEko esperientziak jaso, akatsik ez errepikatu eta abertzale-progresistok bateratzen joan behar gara. Hor dago EAk eta EUEk egin nahi duguna: akordio bat dugu hurrengo hauteskundetarako.



Xabier Gurrutxaga

ra elkarrekin joateko, baina ez dadila horretan bakarrik geratu. Abertzale-progresistak ordezkatuak senti daitezela. Badakigu horri beste hanka bat falta zaiola: HB da. Ezin ditugu HB eta HB apoiatzen dituztenak ahaztu. Atea irekita dago, harremanetarako ez dago prolemarik, baina bai akordioetarako: ETAren biolentzia. Ezin dugu akordiorik egin HBekin autodeterminazioaz bakarrik, biolentziaren bukaeraz ere bai. Zerbait krisian badago, politika egiteko modu bat ere krisian dago. Politikagintzan gabiltzanok jendeaurrean sinisgarritasun gutxi dugu, politika kaka-nahastu delako. Hemen denak tratatzen gaituzte Galeote bagina bezala. Istorio honetan orain 15-20 urte hasi ginenean bezala gaudenean batzuk, antzeko txaketa eta gabardinarekin. Krisi horrezaz gain, biolentzia dago hemen krisian. Irteera bat bilatzeko prest gaude.

- Hika-mika batzu ere badituzue PSOEn bideko EEekin.

bideko EEekin.

- Zatiketaren ondoren, afiliatuak, partidua, 'bat bitan banatzen da'. Gipuzkoan %85 EUE, Bizkaian %70 EE eta antzeko proportzioak (afiliazio eskasagoa) Araba eta Nafarroan. Egun, EEren afiliatorik ez dago, baja eman zuten, direkzio bat dago PSOEn sartu nahi duena. Guri leporatzen ziguten EAekin egiten ari direna, ez zuten partiduaren %15aren apoiorik jasoko. EEren elektoradoa traizionatua dago direkzioa egiten ari denagatik: nahiago dute EE enterratu Casadelpuebloari entregatu baino. Niri pena eta lotsa ematen dit ikusteak zertan bihurtu den: PNVren bastoi eta PSOEn solapako pegatina. Gobernuan egoteagatik saldu dute EE.

- Nola ikusten da EUEn Maastricht?

- Atzeraezina. Erreferendunaren alde gaude, baina ez da egongo. Baietza botatuko genuke, Europako batasun politikoaren alde gaude. Horretarako defizit handiak ditu Maastrichtek, baina hori gabe ez gaude hobe. Herri txiki bateko abertzale bezala diot, bi Estatuak ahultzea komeni zaigu eta orduan gehiago asetuko gaitu Europak.

- Gatozen gertuagora: nola dakusazu Goierriko egungo panorama eta hor N-1aren desdoblamentua. Deba-aldekoak mogitzen ari dira, eta hemen...

- Nik uste dut momentu kezkarrian bizi garela industriaren ikuspegitik. Asko du jokuan Goierri orain. Gipuzkoan askotan 'bihur txiki' baten papera euki du, lurraldeak arnas asko hartu du Goierriko bihotzetik eta uste dut azken hamarkadan lekua galdu egin dugula. Goierritarrok interesatuta egon behar dugu Euskadin izan genuen paper hura, ekonomia, kultura, konprometuz politikoa, e.a erreperatzen. Goierritarrok geurea defendatu behar dugu: ezin dugu geratu azpiegituretatik kanpo, oso inportantea da. Etxegarateko desdoblamentua Goierriarekin erakunde publikoek duten zor bat da. Errepide plan guztietan Etxegaratek zuen lehentasuna. Inoiz ez da sartu lehentasunetan Maltzaga-Urbina. Maltzagakoa, besteak beste, Estaduarien eta autopistetako zorra bat da. Nik uste presioa eta mobilizazioak egin behar ditugula goierritarrok. EUEk biak batera egin ditezela eskatuko du. Dirurik ez badago, 5 urtetan ezpada 10etan egin ditezela.

Jon Arano

GAURKO OGIA ETA BIHAR-ETZIKOA ZIURTATZEN DIGU

Pagosa Okindegia, eguneroko ogia

1976. urte arte Goierriko okin gehienak bere kasa zebiltzan. Ordiziako Sanisidro Granjan ireki zuen bere pabilioia eta elkarlanean ari dira oraindik. Kanpotiko lehia etorri zaie gerora, baina txertaturik daude eta defentsak ere badituzte osasuntsu jarraitzeko urte askotan. Goierri osoari zerbitzu bat eta lehengai bat eskaintzeko: eguneroko ogi berria.

76. arte goierriar okinak elkarrekiko lehian zebiltzan, hala-moduz: Ordizia batean 7 ogizale zeuden, Beasainen 3, Idiazabalen 2, Seguran 2, Zaldibian 3, Zegaman 1, Ataunen 2... Denen artean bilkura egin eta akordio batera iritsi ziren, elkartzea, denon hobeto beharrez.

Hobe bizitzeko esperantzan, ze ez asegururik, ez oporrik, ez jaiegunik ez zuten lehengo okinek. Juntatu ziren bada eta aipatutako eza eta behar guzti hoiek gainditzeko eta gozatzeko prest jarri ziren, beren aseguru eta guzti.

Izan ere, lehen ere ez da ba nahiko gogorra okinaren lana!"Ez da neketsua delako lana, arina da berez. Daukan txarra da ezordutan lan egin behar dela. Ohean egon beharreko orduetan lana eta alderantziz", dio sano askoa aurkitu dugun Joxe Antonio Irastorza hiztun jatorrak.

■ Ogiaren gora-beherak

42 lagun juntatu ziren lanera, okindegi gehienetako nagusi eta langileak. Beren fermentazio kamarekin eta ogi mordoa erretzen zituzten bi labe handirekin hasi ziren. "Beste moda bat ere etorri zen: ogi tipo hori ez zuela jendeak nahi. Bestelako ogia behar zuela. Hobeagoa zenean aurrekoa. Gertatzen zen mami gehixeago zuela, motxeagoa zelako". Orduan ekarri zituzten beste labe txikiagoak, bazterturik gelditu zirela handiak. Eguneko 16-17.000 barra-ogi botatzen zituzten, eskualde guztiari abasto emanaz.

Hasera batean, Goierriin jan beharreko ogi guztia PAGOSAn egiten zen. Baina, beti



Ramon Telleria, gerentea, Jose Antonio Irastorza produkzio burua eta Jesus Mari Albisu administraria elkarriketatu ditugu.

bainak, ogiaren kontsumoa ere jeisten hasi da (ogiak gizendu egiten zuela, e.a.) eta 84.ean plantilaren erregulazio bat egin beharrean aurkitu ziren. Hori bai, gatzik gabeko ogiak, integralak, e.a.-ek indarra hartu zuten eta oraindik goraka doaz.

Gero suertatu zen konpetentzia sartzen hasi zela, "batetik Naparrotik, bestetik Alegitrik, etortzen ez zirenak etortzen hasi ziren. Hau orduan haundia zen eta pentsatzen dugu haundia izaten segitzen duela, baina txiki mailako batzuk ere 'zizaña' sartu zuten. Jeisten joan da zerbait ogi maila, baina eskerrak beste produktu batzuekin hasi ginena, boileri, kruasanekin... eta hoiek lan asko eman digute. Horrezaz medio bititza eta martxa ona damargu".

Geroztik baserriko ogiaren modak kendu al dien galdetzen diegu. "Baserriko ogia ere asko egiten dugu; makinari ukitu gabe, garai bateko moduan eskuz gozatzen den ogia. Oso ogi ona egiten dugun irudipena dut". Gertatzen dena da ogiaren kontsumoa jeitsi egin dela; elikadura ere asko aldatu da, Ramon Telleriak dioskunez, potajea eta saltsak ogi gehiago eskatzen zuten eta gaur egun bestelakoak jaten dira. Modak asko aldatu dira.

Oraintxe bertan 7.000 "kiloko" ogi (350 gr.) erretzen dira, barra-txikiak 2.500dik gora, integralak 1.500-600, gatzik gabeko beste hainbeste, ogi-boiloak; bestalde, kruasanak 24- 25.000 botatzen dira egunero eta berdin boilotxoak, Euskadi osorako, Eros-

Egun bat okindegian

Hiru tandatan lan egiten da PAGOSAn. Aurrenekoa ogiari bere denbora bat emanez hobeto ateratzearren goizeko 1,30 inguruan datoz bost lagun. Goizeko 3etan etorriko dira beste 5-7 lagun, denak okin ofizialak, jakitunak. Lehengoek prestatutakoari ekiten diote. Nahiz erabat makinizaturik egon (ordubetean 8.000 ogi atera ditzakeen makina!), ogia egiteko prozesua betikoa da: behar den bezalako orrea edo masari bere denbora eman fermentazio kamarran, "ahal den legami gutxienarekin hasi (asko txarra baita), ahal den ogi gozoena izateko, datorrela bere kasaka".(Goizeko 5etan labean sartzen da ogi hori eta 5,45etarako erreta dago. Goizeko 6etarako etorriko dira 9 partitzaileak, ogi genero mota guztiak eukiko dituzte txuxen asko antolatuta; atzetik datorren ogi berri-beroa 8etan, eta hirugarren tanda 10ak aldera. Errepartoak eguerdiko 1ak arte irauten du. 35 langile aritzen da lanean urte osoan gelditu gabe, txandaka hartzen diren opor-egun batzuk kenduta. Fakturazio galanta daukan enpresa da Goierriko Okindegia.

ki-ren bidez banatua. Ormaiztegi-eta salbu, bailadan osoan zehar eta Altsasura iristen direla 9 errepartu-furgoneta darabiltzate.

■ Etorkizun-erretoak

Okindegiak gaur egun zein erreto edo erronka dituen galdetu diegu bertako bu-
ruei. Gaurkorartekoan mantentzea, eginari eustea, ez baita gutxi, asmo berriak badi-
tuzten arren. "Nahiz zaila egon, saiatuko gara, beste genero batzu ateratzen mer-
katuara. Joan behar dugu, ahal dela, kan-
potiko generoaren etorrera zailtzea. Geu-
rea mantentzeko mentalizatu, ikusi-ikasi eta marka berriak egitekotan gara". 'So-
bauak', boilo-barrubete eta gisako jaki go-
xoak potentziatekotan dira.

"Ogi mailan tristeza dago gaur egun ikusten dena. Guk besterik ez genuen jaten: ogia. Baina gure ondorengoek gozo gehiegi ibili dute eskutan eta ogia baztertu dute. Erre-
posteria generoari gehiago heltzen dio jendeak. Gaur egungo familia ere txikia-
goa da, biztanlegoa ere jeitsi egin da...", merkata eta gaia ezagutzen dituztenen iritziak.

Gizendu egiten duela, txarra dela... Uste-
ak ustel, baditu bere birtuteak. "Ogiak ber-
tute onak ditu, beharrezko gauza eta ele-
mentuak, fibra, burnia, maltako estraktoa, gari-
irina,... ogiari ez zaio ezer nahasten, irina, legami zahar indar emalea, ura, gat-
za eta besterik ez. Boileriak, beste proze-
su batzu daramatzate, nahiz bejetalak izan, grasak ere bai. Grasak ez dira hobe-
ak". Baina jendeak nahiago pastela ogia

baino. Ogi klase asko dira egun, butiketan-eta. Baina ohitura txikia da oraindik Goierri. Dibertsifikazio horretara jotzea ez da hain erraz ikusten okindegi erraldoi honetan.

PAGOSA bailada osoa asetzeko asmo, interes eta bokazioarekin sortu zen. Kejak badituzte bere bu-
ruek: "Konpetentzia sartu zaizkigu aldameneko okindegi txikiak. Sartu ezezik Eusko Gobernuak apoiatu egin ditu haiek eta ez gu, gure kal-
terako dira. Krisiak ekarri ditu bes-
te horiek". Goiko agintariengan gauza itsusiak ikusten dituztelako-
an daude.

Oraintxe bertan 14 lanpostu berri badituzte okindegian. Seinalea bat-
xetik irtetzen jakin dutela. "Idea ber-
riak dituztenei lagundu egin behar zaie, langileak hartzeko ahalmena baldin badu, agintarietatik hasita, gainetik. Ez edozein bazterretan edozein gauza montatzen aritu".

Konpetentzia sartu eta gero ere handi izaten segitzen du PAGOSAK

Gaur edo bihar, behar-beharrezkoa izan-
go dugu ogia. Okinen elkarte honek solu-
zio orokor bat eskaintzen dio Goierri.
"Grebak, elurteak, egun askoko jai eta ha-
lakoak direnean larritzen da jendea. Gu



aurrez prestaturik gaude edozein larrial-
dietan erantzuteko; okindegi txikiak berriz,
ez. Guk ezin huts egin, konpetentzia ez da
gai aurre egiteko hutsune horri. Alderant-
zizkoan, gu bai". Baina jendea ez da kon-
turatzen eta ez du behar hainbat eskert-
zen goierriar okinen ahalegina.

Gure okindegi honen funtzionamendu ja-
kinmina duenak (nonbait, eskolame-
n bertaratzen da ogia nola egiten den eta
katramailu guzti horiek jakitera) ateak za-
balik aurkituko ditu PAGOSAn.

Jon Arano
Mikel Albisu

OPTIKA MIKEL

ELOSEGI, 48
Tel eta Fax-a: 88 09 35

LAZKAO



Elosegi, 13 • Tfnoa: 16 10 16
20210 LAZKAO



ANAIK GARAJEA

MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa
Tfnoa: 80 11 32

IDIAZABAL
(Gipuzkoa)



Ofi-Gamar, c.b.

Konpromesurik gabeko
aurrekontuak

ALUMINIOZKO METALISTERIA

OTATZA PLAZA, 1- BEHEA. • Tfnoa: 88 86 66 • ORDIZIA

TXIRRINDUZALE MADRILDAR BAT GOIERRIN

Rafa Gonzalez: "Txirrindulari eskolak desagertzen ari dira"



Rafa Gonzalez Madrilen jaioa da eta 18 urte zituelarik etorri zen Euskal Herri aldera txirrindularitzan zortea probatzeko asmoz. Gaur egun Zegaman bizi da ezkonduarik eta Beasainen "Gurpil", txirrinduen konponketa eta salmenta denda du.

GOIERRITARRA.- Nola sartu zinen txirrindularitza munduan?

RAFA GONZALEZ.- Txikitatik gusatu izan zait mundu hau, 14 urterarte ikasten aritu eta 7 anai-arreba ginenenez lanean hasi nintzen. Txirrinduan zebilen jendea ezagutzen nuen hauen bidez 15 urterekin lehiatu nuen lehen aldiz. 18ra iristean ziklokroszale batek hona etortzeko animatu ninduen, lantokian eszedentzia eskatu eta hemen nauzue.

G.- Zer aurkitu zenuen hemen?

R.G.- Kanpotik datorren batentzat Euskal Herria txirrindularitza mailan izugarria da bai afizio bai txirrindulari aldetik. Hortxe ibiltzen nintzen ez onenekin ez eta txarrenekin, baina ez nuen Madriler burumakur itzuli nahi. Beraz, lan bat bilatu eta bertan jarraitu nuen.

Batez ere ziklokrosa egin arren, kaminu pixkabat eta pista ere frogatu nintuen. 24 urterekin Santander aldean sortu berri zen Teka talde afizionatuan aritu nintzen bi urtez. Lanarekin txandakatuz nenbilen baina azkenean utzi eta 1980.ean txirrindudenda zabaldu nuen Beasainen.

G.- Profesionala izateko aukerarik ez?

R.G.- Orduan ez zen gaur hainbat jende igotzen, onenak bakarrik, nere garaian Nazabal, Andiano, Maioz... eta nik aukerarik izan ez nuen, txirrinduak konpontzera! Afizionatua izan arren profesionalekin hainbat lasterketa egin eta hor punta punta-koekin ibili nintzen, beraiek baino geldiago baina atera, batera ateratzen ginen.

G.- Nola ikusten duzu txirrindularitza gaur egun?

R.G.- Oso sasoi onean, baina pentasolde aldaketa bat dagoela iruditzen zait. Txirrindularitza eskolak desagertzen ari dira, orain diote 15-16 urterekin hasi behar dela korritzen, baina orain hainako txirrindularirik ez da inoiz egon eta hauek eskoletatik atera dira. Goierri mailan, hor daude Aitor Garmendia eta Xabier Aldanondo, atzetik ere ondo dabilen gazte asko dator.

G.- Saltzaile bezela begiratuta zer nolako gorabeherak ikusi dituzu?

R.G.- Orain urte batzuk zikloturismoa askoz ere gehiago egiten zen.

Gaur egun, batez ere mendiko bizikletaren "boom"-a dago, hemen beste hainbat lekutan baino konpetizio gutxiago egon arren jendea mendian bere kontura ibiltzen da. Hala ere ez gehiegi, gogorra da eta fisikoki prestatua egon behar denez jendea batez ere kalean ibiltzen da. "Mountain-bike"-aren salmenta asko igotzean kaminukoak behera egin du, orokorrean zertxobait igo dela uste dut.

G.- Teknika aldetik ze aldaketa ikusi duzu.

R.G.- Handia, gaur egun ez da duela 15 bat urte bezala ahal zen txirrinduarinenaren bila joaten. Orain konturatu dira txirrinduak sendo behar duela izan eta horretarako arinegia izatea txarra da. Batez ere piezen funtzionamendua hobetu da, frenu, kanbio eta abarrena. Igoerek betikoak izaten jarraitzen dute eta haizeak beti bezala jotzen du. Hori bai, prestakuntza fisikoa, elikadura eta medikuntza hobetu dira gehien.

G.- Mundu honetan jarraitzeko ondorengorik ba al duzu?

R.G.- Bi semeak ibiltzen dira, lehen futbolari ziren baina "bankillo" gehiegi berotzen zutela eta txirrinduan hasi ziren. Zaharrenak lasterketa batzuk irabazi ditu, gazteena berriz, "klasea" duela dioten arren, entrenatzeko garaian alferxeagoa da.

Mikel Albisu eta Ane Martin.

Eskolarteko Jokuak

Kurtso berriarekin batera hastekoak dira aurten ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol Departamentuak programaturiko Eskolarteko Jokuak.

Sei eta hamasei urte bitarteko ikasleri zuzendutako iharduerak osatzen dute programazioa, eta bertan parte hartu ahal izango dute norberen ikasketxean izena ematen duten ikasleek. Joku hauen iharduerak hauexek ditugu:

—**Sustaketa iharduerak**, ikasleek zenbait kirol berri ezagutu eta beren teknikak ikasteko zuzenduak dira: igeriketa, izotz irristaketa, xake, eskia... Kirol has-tapenaren erizpidearekin antolatutako dira, araututako lehiaketaren forma alde batera utziaz. Sustaketa iharduera hauetako deialdiak ikasturtean zehar egingo dira.

—**Lehiaketa iharduerak**, bi motatakoak dira:

Heziketa eta jolas lehiaketek, hezte eta jolas egitea dute xedetzat. Modu zikliko batean zenbait kirol ezagutzeko eta praktikatzeko eskubidea bermatzen zaie ikasleei.

Benjamin kategoriako ikasleek (1984-83n jaioak) bost kirol desberdinetan parte hartuko dute eskualde mailan ikasturtean zehar. Alebin kategoriakoak berriz (1982-81n jaioak) bi kirol desberdinetan hartuko dute parte. Eskualde mailan jokatuko ondoren, irabazleek Gipuzkoako Txapelketan parte hartu ahal izango dute.

Infantilek (1980-79n jaioak) eta kadeteek (1978-77n jaioak) eskualde eta herrialde mailetan jokatuko dute aukeraturiko kirol edo kirolean. Honez gain, Gi-

puzkoako Txapelketan irabazle ateratzen diren infantilak Euskadiko Jokuetan parte hartu ahal izango dute.

Iharduera hauek Urrian hasita, kurtsoaren zehar izango dute leku eta normalean larunbat goizetan jokatuko dira ikas-tetxeetako instalazioetan.

Goi mailako lehiaketa iharduerak ikasle kopuru mugatu bati eskaintzen zaizkio, modalitate zehatz batean maila ona erakusten dutenentzat. Goi mailako kirole-tan sartzea du helburutzat.

—**Teknikakzio iharduerak** ikasle zehatz batzuen maila, alderdi fisikoan, taktikoan eta teknikoan, hobetzera zuzendutako daude.

*Gipuzkoako Foru Aldundiko
Kiroletako Eskualde Bulegoa*

Bi lerrotan

◆ —Traba guztiak gaituz lortu dute hiru goierriarrek Kangchuntseren gailurra zapaltzea. Ekintza ugari antolatu zituzten dirua lortzeko eta bi hilabetetako abentura baten ondoren herriratu zitzaizkigun. Ramon Agirre "Marron" ataundarra, Joxe Ramon Baztarrika "Txanpi", Iñaki Urteaga "Kiosko", Jon eta Imanol Lasa lazkaotarrak eta Mikel Saenz ordiziarra izan dira Goierri-Kangchuntse espedizioa osatu dutenak. Hauetatik hiruk, Marron, Baztarrika eta Mikelek lortu zuten gailurra joandako irailaren 24ean. Indar asko jarri omen dute, ikusita zenbat traba izan dituzten, bidean ez etsitzeko. Hurrengo espediziorako ezagunagoak izango dira eta ea aldapa txikiagoak aurkitzen dituzten gogo egiteko!

◆ —Idiazabalgo Herri Eskolako 250 umeek hartu zuten parte herri bereko "Zelaa" Kirolegiaren inaugurazio-ekitaldian. Kirol Diputatuak-eta ez arratsaldeonik eman ez agurrik erdara hutsean mintzatu omen ziren, bertan zegoen jendearen gehien-goia euskalduna izanagatio. Oraingoz, Kirolegia Herri Eskola-koek erabiliko dute beren eskaera zenez. Gerora herritar guztientzat egongo da zabalik, eskolorduz kanpo. Kirolegiaren aurrekontua 90 milioietakoa izan da, %60a Diputazioak jarri duela-

rik.

◆ —Irekirik dagoeneko Ordiziako Majori Kirolegian Kirol Zentru Medikua. Pilar Araña medikuaren kargu egongo da, Irene Irastorza izango duela laguntzaile. Azken teknologiaren bitartekoekin horniturik egongo da.

◆ —Gipuzkoako VI Martxa Erregulatuarekin batera etorri zen Ordiziako Mendizaleak elkarteak bizitza guztian mendizale izan diren Elu eta Karmen Gaztañagari egin zitzaizen omenaldia. Agi danez, lagun asko egin dituzte mendian beren bizitza osoan.

◆ —Kanpantorreak eskalatzen espezialdutako Erramun Irastorza zaldibitarrek kritika gogorra jaso du "Desnivel" aldizkari-ko azken zenbakian. Patxi Arozena eta punta-puntako beste 9 eskalatzaileek berak prestatutako Donostiako eskalada txapelketako antolakuntza txarra salatu dute.

Ordiziako Mendizaleak: Egutegia

Azaroak 15: Urko-Arrate; 22: Udana-Artzanburu-Urbi- Arantzazu; 29: Amezketa-Bedaio-Azkarate. Abenduak 6: Gañeta- Pikuta

GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 B E A S A I N

GOIERRITARRAren irakurleak,

Txartel hau aurkeztuz % 10ko
deskontua izango du GURPILen
edozein erosketa egiterakoan

BASERRIKO TRESNEN ERAKUSKETA ZERAINEN

Lan haundi bat herri txiki batean

Zeraingo baserriko tresnen erakusketa joan den Irailaren 26- tik Urriaren 18-ra egon da bertako pilotalekuan. Ekintza honen helburua kultur etxeko ganbaran erakusketa iraunkorra antolatzea da.

Honetarako herriko baserrietako tresneriaren ebaloaketa bat egin ondoren erakusketa ikusgai egon diren aukeraketa egin zuten eta hemendik aterako dute erakusketa iraunkorreko materiala. 800 pieza baino gehiagoko erakusketa hau lau sailetan egon da banatua:

1.-Baserriko bizitzaren hornidura: Sukaldeko tresnak, argia egiteko sistemak, pisu eta neurriak, altzariak...

2.-Nekazaritza ekoizketarako teknikak: Lur prestaketa, ereite eta landaketarako; uzta bilketa eta hazia garbitzeko; abeltzantza eta artzantzarako tresnak.



Gure baserrietako sukaldeak orain gutxi arte alaitu zituzten irrati eta soinu-tresnak.

3.-Garraio sistemak: Eskuzkoak, arrastakazkoak eta rotaziozkoak.

4.-Bilketa eta ehiza tradizionalako sistemak: Zepo eta tranpak, arrantzarakoak eta uzta bilketarakoak.

Hauen artean ikus zitekeen piezarik baliotsuena XVII mendeko diezmero eder bat zen.

Erakusketa honen arduradunek badute zeresana. Hain zuzen ere M. Flor Mendizabal kultur zinegotziak oso positibotzat jotzeaz gainera honoko balorazioa egin digu: "10.000 pertsona inguru pasatu da hiru asteotan Zeraindik". Hasera batean bi astetako izan behar bazen ere astebetez luzatu zuten.



Artoa jotzeko antigoaleko tramankulua.

"Eskolaumeak egunero 4-6 talde pasatu dira bertatik, hauei erakusteko lau pertsona eduki ditugu bertan. Gipuzkoa osoko taldeak izan ditugun arren, gehienak goierritarrak ziren". Hala ere jendetza handiena aste bukaeretan bildu da: "Urriaren 11-n 1.500 lagun igaro ziren, lasai ikusteko aukerarik izan ez, eta jende asko berriro itzuli da".

Gustuak gustu, jendeari arlo ezberdinak interesatu zaizkio, galdera ugari egin eta batez ere errealitate hau bizi izan dutenak ibili dira "bere saltsan".

GOIERRI

Auto errekanbioak

- Automobil-Zerbitzu orokorrak
- Lucas Girling, Valeo Marketan banatzaile ofiziala

Nafarroa etorbidea, 29
Tfnoa: (943) 88 45-50
Fax. (943) 88 88 09
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)

"Eskertzekoa da herriko jendearen laguntza, tresneria guztia Zeraingo baserritarrek utzi bait dute nahiz eta dagoeneko material asko salduta edo erreta egon. Honez gain 55 lagunek osatutako talde bat egon da gau eta egun erakusketa zaintzen", dio M. Florrek.



Ezkerrean gurdia eta gurdi-motza eskubian.



Pazientziaz eginiko eta ondo kontserbatutako kutxa.



Koartoetan obizkoak ziren garbiketa pertsonalerako baltzariak.

Erakusketa Iraunkorrean aukeratutako tresnez gain herriko, mehatz eta zenbait pertsonen historia ere kontatuko da. Honez gain joan den mendeko zerrategi bat errestauratu da erakusgai jartzeko asmotan.


Mikel Albisu eta Ane Martin

FOTOETXE

JOSEMNRI TELERIN
ARGAZKIGILEA

BIDEO PROFESIONALA ERREBELATUAK eta ARGAZKIGINTZARAKO MATERIALEAK

Nafarroa Etorbidea, 23 - Tel. 88 46 05 - 20200 BEASAIN



HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Nafarroa Etorbidea, 45 • Tfnoa: 88 54 66
20200 BEASAIN

URBIETA

JATETXEA

Eguneroko menua eta banketeak

Espezialitatea Txuleta
kokote brasan
Etxeko posteak

HELBARRENA

TFNOA 88 10 19

ATAUN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

IRAILAREN 12A: "SANTAKRUZ" PASTORALA ORDIZIAN

Santa Grazi herria hustu zenekoa

UMETAN, eskolan, Espainiako probintziarik ttikiena **Guipúzcoa** zela irakatsi ziguten; gero, gaztetan, hori gezurra zela ikasi genuen, eta are gehiago, **Zuberoa** zela Euskal Herriko probintziarik ttikiena. Pentsa ezazu, esate baterako, Beasainen Zuberoa osoan baino jende gehiago bizi dela; hortaz, atera kontuak...

Eta Zuberoak hegoaldekoentzat beti izan du nostalgia eta malenkonia punttu bat, beharbada aspaldi entzun genuelako Benito Lertxundiren **Zuberoa** diska, edota Jon Etxaideren **Joanak joan** nobela irakurri. Baina Zuberoa, kantak esaten duenez **bazter guztietako txorik ederrena**, hori baino askoz gehiago da.

Zuberoa mendia da: Pirinioa, Orhi mendia, Irati oihana... Zuberoa paisaiaren berdea da, eta teilatu txorrotxen grisak. Zuberoa kantua da, eta kantu hori aurtengo Ordiziako Euskal Jaien barruan entzun eta gozatu ahal izan dugu.

Eta Piriniopean, Belaguaren bestaldean, mendiz eta leizez inguratua, Santa Grazi herrixka dago. Lehen **Urdaitx** izena zuen herri honek makina bat pasadizo eta ipuin gordetzen ditu: estraperloa, gerra, hartza, elurra... Baina goazen poliki-poliki.

Herrira iritsi eta lehendabizi harritzen zaituena eliza duzu, eliza erromaniko ederra eta kanposantua. Ondo gogoan dut hara joan ginen batean bi konfesionario aurkitu genituela: aitorleku bat bertakoentzat zen, bestea kanpotarrentzat. Bestalde, eliz barruko gurutz bidea ikusi genuen, dena euskaraz. Geroztik, badaikit eliza konpontzen aritu direla eta ezin bada esan gauza hauek oraindik irauten duten ala ez.

Beste behin, baserritar bati hartzen gainean galdetu genion, ea paraje haitan hartza ikusia ote zuen. Hasiera batean ez zigun erantzun; gero, etxe barrura sartu eta disekatutako hartz baten atzamarrak atera zizkigun... Hala ere, Zuberoako sinismenean hartza hiltzea bekatu modukoa zen, gizakumea hartzatik datorrela pentsatu izan bait da.

Santa Grazik, bestalde, lapur fama



dauka, baina Txomin Peillenek esaten duenez ez omen da egia Santa Grazi lapur eta gaizkile jendeak osatu zuenik; bai, ordea, gaizkileak-eta bertara ekartzen zituztela itsasuntzietako mastak egitera. Gainera, herria oso aparte geratzen denez, garai batean barne ezkontza, hau da, bertakoak bertakoekin ezkontzea, oso normala omen zen. Hori herriak 1500 bat biztanle zituenean gertatzen zen eta gaur egun 400 eskas omen ditu. Komunikazio ezagatik ere, santagraztarrak Atarratzera bezala maiz Izaba aldera jotzen omen zuten, eta euskara bezala, bearnesa, frantsesa eta gaztelania ezagutu ohi dituzte. Eta euskara diodanean, hango **uskara** esan nahi dut... (Zuberoako beste herri ttiki bateko kanposantuan, behin, apaiz baten hilarrian hau irakurri genuen: "NI NIZ BIZIA. NI NIZ PIZTIA",... piztuera, alegia).

Eta Santa Graziko jendea antzerki handi batekin nora etorri, eta Goierriara, Argi Berri elkartekoek deituta, Hegoaldekoentzat. Pastoralarekin gozatzeko batez ere bi traba nabarmentzen dira: hango ahozko euskara, zuberera, ulertezina zaigu; bestalde, emankizuna oso luzea izan ohi da (3-4 ordu). Eta hala ere, saio honek sekulako gozamena eskaini zigun. Han, Santa Grazi herri osoa

zegoen: artzain, laborari, tabernari, ikasle, langile, apaiz... zirenak eta ez zirenak, denak kantuan eta dantzari, Santa Kruzen bizitza antzetzten. Bai, pastoralak badu zer bait magikoa, eta hori **Els Joglars** talde kataluniarraren zuzendaria, Albert Boadellak esaten zuen, alegia, pastora ikusita beste garai, beste denbora batean sentitzen zela.

Egia da gai aldetik oraindik Herria eta erlijioa besterik ez zirela aipatu, baina pastora aldaketa bidean dago. Dagoneko ez dira saildu eta frantses militarrek ageri, orain pertsonaia abertzaleak agertzen dira. Gainera, argi dago bai Iparraldean bai Hegoaldean momentu bastante desberdinetan bizi garela: kontzientzia, politika... Are gehiago: hango edertasunaren atzekaldean euskalki ahul bat ezkututzen da, ekonomia kaxkarra, biztanlego urria... Baina hori guztia ezagutzeko, orain gure txanda



iritsi da, orain gu gara hara joan behar dugunak, eta hasteko, datozen ihaurretan egingo diren **maskaradetara** joan gaitezke, gainera hor nekez aspertuko bait gara.

Patxi Zubizarreta

DOINUAK IRAKASTEN DIZKIE BERTSO ESKOLAKO IKASLEEI

Xanti Garmendia:

"Bertsolari-ikasleek bizitasuna behar dute"

Gaintzan jaioa eta Deustuko Unibertsitatean Filosofia eta Letretan lizentziatua. Ordiziako Jakintza Ikastolan hamabi urtez lan egin ondoren, gaur egun Lazkaoko San Benito ikastolan B.B.B. eta UBIko gizarte gaiak lantzen ditu.

Gaztaroan ordea, Saturraran eta Donostiako Seminarioan zazpi urte iragan zituen eta bertan "armonium" deritzon musika tresna jotzen ikasi. Baina Seminarioa joan aurretik ere izan zuen paregabeko laguntzarik bertso eta musika munduan murgildu ahal izateko: Joanito Dorronsoro. Bertsolaritzan lan bikaina burutu duen gizon hau zen Gaintzako erretore eta Xantik solfeoa, pianoa eta hamaika bertso doinu ikasi zuen Joanito berari esker herrian egon zen bost urteetan.

—Bertsoaren zein arlo lantzen duzu?

—Ondoriozta daitekeenez, doinu mota ezberdinak lantzen ditut Bertso Eskolan. Gutxi entzundako doinuak direnean, talde haundietan hasten gara denok batera abesten eta pixkanaka talde mugatuagotara joz denek ongi menderatu arte. Lan honetan oso lagun ona dut grabagailua, hauerrei izugarri gustatzen zaie beren ahotsa grabaturik entzutea. Gainera beste zenbait materiale ere badut, adibidez Joanito Dorronsororen "Bertsotan" liburua, Ikastolen Elkartek eta Bertsolari Elkartek azken urteetan argitaratuak ere hor dira eta txapelketetan eginiko bildumak nahiz "Auspoa"n argitaratuak ere baliagarri zaizkit.

—Zer moduzko arretaz jarraitzen dute ikasleek?

—Adin honetako haurra ez da esplikazio teoriko handien zale, baina taldean konfiantza giro bat sortzen denean, oso gus-tora abesten dute, bizitasuna behar dute

lan dinamikan eta horregatik zenbat eta doinu bizi eta alaiagoak, atsegina egiten zaie jarduna.

—Bertsolari bakoitzak du halako kanta-
era berezi bat, musikari zehatz lotzen
ez zaiona batzutan eta gainera belarri
txarrekoak ere badira batzuk...


—Sarritan topatu gara bertsoa osatzeko
erreztasuna duten ikasleekin, baina nota
bat zuzen emateko gai ez direnekin. Kasu
hauetan talde haundian ezin da ezer egin
eta bakarka landu beharko litzateke, bera-
rekin batera kantatu bertsoan zehar hase-
rako doinua mantentzen lagunduz eta

Diferentzia nabarmenak ikasleen artean

grabatu ondoren berriro entzun, horrek
asko laguntzen die nere ustez. Askotan
diferentzia nabarmenak ematen dira ikas-
leen artean, etxeko giroa eta ikastolako
kontutan izanik. Batzuk solfeo ikasketak
ere egiten dituzte.

—Gaurko bertsolarien doinu erabilera
eta kopuruaz, zer deritzozu?

—Zenbait jaialdi eta txapelketetan doinu
batzuren erabilerekin "pasatu" egiten di-
rela iruditzen zait bertsolariak. Modan jarri
den doinu batekin hasi bikote bat eta bes-



te denak jarraitzen dute, sarritan azkene-
rako aspergarria bihurtzen delarik. Hain-
bateko aukera dagoenean, barietate gehi-
xeago eskertzekoa litzateke edo gutxie-
nez gaiari dagokion doinu aukeraketa egi-
tea. Hala ere, nik uste bertsolari batzuk
kantatzeko eran urteetan zehar egin duten
hobekuntza nabaria dela eta zenbat eta
gusto gehiago, sentimentu gehiago jarri
abestean, orduan eta errezago iritsiko di-
rela entzulearengana.

—Zeren gabezia ikusten duzu gelan
nahi duzuna irakasteko?

—Ikaslearen jarraipen pertsonalagoa egi-
tea komeniko litzateke, baina talde han-
dian hori aurrera eramatea ez da batere
erraza besteak ezin dituzulako soseatu.
Bestalde, eta materialeari dagokionez,
haurren munduari egokitutakoak oraindik
ere gehiago behar lirateke, ugaritasuna
falta da maila hauetan oraindik.

—Noiz arte lan honetan?


Ez da noski, beste munduko lana hemen
asteen behin egiten duguna, baina des-
kantsutxoren bat ere ez litzateke gaizki
etorriko. 10 urte pasa dira eta badira bat-
zuk. Nik uste, gure inguruan ideia presko
eta berriekin, neri dagokidan arloan
behintzat, badela jenderik eta zaletu horiei
gurekin harremanetan jartzeko eskatuko
nieke.

Iñaki Murua

IDAZLE, EKONOMILARI, DIPUTATU, EUSTAT-EKO ZUZENDARI...

"Txato" Agirre ataundarra, "68ko belaunaldikoa"

Ataun-Sanmartingo Haitzarte auzoko Aizkorri-ondo baserrian jaio zen Joxe Mari Agirre 43.ean. 11 urterekin seminarioko bidea hartu zuenetik makina bat korritu du goierritarrak munduan. Elegante fama dauka, hiltun aberats eta txukuna dugu Txato.



ARGAZKIA: A. BAYO

Baseritik jeitsita, ikasi beharreko piska Ataunen ikasita, Donostiako seminarioko lehen promozioen artekoa izan zen. Humanitateak bost urtetan ikasi eta Filosofia beste hirtan, diziplina honetan saio ederrak egiten zituela gogoratzen du. "Horiek denak asko markatzen dute pertsona. Seminarioan sartuta 2-3 urtetara (kontutan hartu behar da tutik ere ez genekiela erdaraz) esaten ziguten asko irakurri behar zela. Lehenik erdaraz hasi ginen, euskal giro gehiegi ez zen noski". Antton Garro irakasleari esker "Kulixka" sortaren irakurketak egin eta 13-14 urterekin hasi zitzaion zaletasuna bizten.

15-16 urtetarako poematxo batzu egiten zituen, erlijio kutsukoak gehienak; beste mundukotzat ez dauka bere produkzioa halere. Zeruko Argian idatzi zuen 67.ean, eta J.P. Sartrearen "La putain respectueuse" itzulirik dauka argitaratzeke. Argitaraturik Camus-en "Arrotza" eta Ionesco-en "Erregeren herioa". Ispiraturik dagoenean idazten du bere buroarentzat. Poemaren bat edo beste musikatu izan zioten, kanporatu zenean.

Seminarioan 10 urte egin ondoren politikagintzan sartu zen. "Saioak"en idatzi, ETAn militatu eta 67.ean herbesteratu zen. Lehenengo Belokera, han bazituen Lazkaokon egoniko ezagunak. Hiruz-

palau hilabete eginda, duda-muda batzu bazituen bere baitan ikastea komeniko zela pentsatu zuen eta Suizako Friburgo-ra abiatu zen. 68ko Sansebastian egunez iritsi eta hango Unibertsitateko Ekonomia Sailean ikasi zuen bost urtez. Lizentziatu, master bat egin eta berriro hona itzuli bitartean hango Istitutu batean lan egin zuen. "Giro bitxia zen hura, bazeuden Hungariatik e.a.etatik etorritakoak. Ikasketak eta lanbideaz gain leku eta joera ezberdinetako jendea ezagutzeko aukera izan genuen. Gure mundu nahiko itxikit atera eta bapatean kanpoan aurkitzen zara, unibertsital giroak eragin bat du zuegan. Arrotza eta inpresioanantea aurrena, egokitzen zara gero". Euskaldun eta europeista sentitzen da Txato Agirre.

"68ko belaunaldikotzat" jotzen du Joxe Mari bere burua. European zehar mugari bat suposatzen du fetxa horrek, gerora garatuko zen prozesurako. Nahiz eta Euskal Herrira 68 hori 70 etan iritsi, Burgozko prozesuarekin. Parisen ezezik, europear unibertsitateetan 68.aren inguruan ibiltzeko aukera izan dutenak badakite zer nolako arrakasta izan zuen bere garaian gertaera hark: "Hango giro politikoa demokratikoa zenez, sekulako eragina zuen; hona beharbada, diktaduraren azpian, zipriztinak iritsi ziren. Giro horrek asko markatu gintuen, espektatiba bereziak sortu zituen: une batean bazirudien mundua eta gizartea aldatzeko modukoa zela, zartatzen hasiak zirela hain ardatz sendotzat jotzen ditugun gizarteko egitu-

rak".

Halako "boom"aren ondoren ordea, altxafuegoen gisakoak izan zirela zirudien berriro, errealtate xume eta egunerokoa agertu zen. *Ilusioak iraun zuen urte batzuetan eta nahiz eta jakintsuek teorizatu eta ondorioak atera, itzali zen. Ikusi besterik ez dago, 68ko lider gehienak alderdi tradizionaletan sartu ziren eta orain buru dira: Michel Rocard boterean dago; Conh-Bendit eta beste beste arlo batzutan ari dira lanean, baina esango nuke denak, gutxi-asko, errekonbertitu egin direla*. Esperientzia positibotzat dauka halere europearra.

Bederatzi urte luze pasa eta gero, atzerria atzean utzi eta 77.ean bueltatu zen amnistiarekin. Gaizki pasea ote zen aditzera genuen. "Nik ez daukat oroimen txarrik. Badakit gauzak nik uste baino korapilotsuagoak aurkitu nituela. Ohituta nengoen urteetan giro libre batean edozein gauza esaten, eztabaidatzen. Giro tolerantetarako ezagun nituen eta honeratzearan giro zipotza aurkitu nuen: tolerantzia gutxi, jende guztiak nahitaez sanbenito bat euki behar zuen. Etiketa zen nagusi eta ez pertsonaren izakera, pentsakera, ebo-luzioa jakitea. Horrek baten lanak eta proiektuak baino gehiago pisatzen zuen. Ni ez nintzen batere ondo sentitzen giro txepel horretan. Esan izandu dut: alde batetik pena eman zidan etorri izanak".

Soldaduskara ere joan behar izan zuen hiru hilabetez, itxurak egitera. "Eta kan-

poan ibili, ibilitako gauzetan eta zuk pentsatzen duzu, ez laguntza edo besoak zabalik aurkitzea, baina bai gizartearen harrrera hobea", dio. Zerbaitetan aritu lehenago eta bueltakoan bere lanbiderik ez zuen aurkitzen. Oztopo petralen bat edo beste ere izan zuelakoan dago. Politika lanetan segi eta 80.etik aurrera Jaurilaritzan aritu zen Ekonomia sailean. Gipuzkoako Ekonomia Diputatua izan da EE-tik, 87etik 91.a arte.

Ekonomia sailean estudio, analisi eta lan teorikoak egiten zituen. "Diputazioa etorri nintzenean, munduz aldatu nuen zeharo: numero eta teoriakin lan egitetik, horiek aplikatzera pasa nintzen. Espe-

"Giro toleranteak ezagun nituen atzerrian; 77.ean bueltatzean giro zipotza aurkitu nuen"

rientzia aberasgarria izan da neretzat, zeren enpresekin, gizartearen zati dinamikoetako batekin izan ditut harremanak. Proiektuak, inbertsioak lagundu eta bultzatu, teknologia aurrerapenak segitu, lanbide heziketa mundua antolatu... Nik uste

dut halako leku batean lan nagusia hori dela". Esperientzia polita, Agirrek dioskunez.

Izan den goierritar diputatu bakarra izango zelakoan gaude. "Goierritako zerbait egiten duzunean, mimo bereziarekin egiten duzu", esanez amaitzen dugu elkarrizketa. Diputadutza utzi eta Estadistikako zuzendari da EUSTATen Joxe Mari Agirre. Numeroekin borrokan berriro. Hala ere, denbora hartzen du hitzaldiren bat emateko edo Legorretako bertso-jaialdietan gai-jartzaile bezala aritzeko.

Mikel Aramendi

Felipe Barandiaran lazkaotar aktorea, ETBko ahotsetako bat

Lazkaon jaioa dugu Felipe Barandiaran, 1945.ean. Bertako frailetegian egin zuen batxilerra. Orduan, "euskara-kontuak bazterturik zeuden, debekaturik ez esateagatik".

Lazkaoko frailetegian euskara aldetiko giro ona zegoen eta nahiz eta ikasketa laburrak egin, Dionisio Amundarain bat izan zuen irakasle eta horrela zaletu zen idaztera, Beasaingo urtekarian adibidez. Halere, ez ditu aipatzekotzat jotzen bere idazlanak, gutxi direlakoan.

Ez genekeguna aitortu digu Felipek, berehala Frantziara joan zen sukaldaritza ikastera eta handik Ingalaterrara hiru urtetarako. Beasainen oinetako denda bat jarri zuen gero eta laister enteratu zen periodikuen bidez bikoizketarako ikastaroak zeudela. ETB montatzeko asmoak zeuden eta beasaineratua prestatu egin zen. Horrela sartu zen ikusentzutezkoen munduan.

ETB emititzen hasi baino lehendik gaur arte bizitutako esperientzia, "beno, izu-

garria izan da, ze nik beti izan dut balako grina bat antzerkia egiteko. Txikiak ginela Lazkaon bazen antzerki talde bat, amateurra, baina oso gustokoa nuen. Gero bemen ez zen ezer egiten, Catalunyan-eta bai. Atzerrian ibili nintzenean bor zirauen zaletasunak, baina bizkuntza nuen oztopo, ondo menperatu behar bait da. Telebistaren okasio hau izan zen txikitako ilusioa nolabait errealitate biburtzeko, ipuinetan bezala biburtu da egia nire ametsa. Gerora horrela izan da gainera". Loteria bat tokatu balitzaio bezala dago Barandiaran.

Hamar urtetan makina bat paper, hamar mila klasetako pertsonai bikoiztu ditu, ezin gogora ekarri denak; momentuan buruan daukan bat Anthoni Hopkins ("El silencio de los corderos"), bere bizpahiru filma bikoiztu bait ditu azken aldian. "Lehen musuak" seriea ari da bikoizten orain. Lan politizat du berea eta azkene-koekin geldituko litzateke bera.

Horrez gain, zinean ere egin ditu inkurtsioak, "Hamaseigarrenean, aidanez" eta

"Kareletik" filmetan parte hartu du. "Zinegintza beste istorio bat da. Tamalez, bemen ez da asko egiten, pare bat pelikula urtean. Niretzat esperientzia hori oso-oso polita izan da, ilusio handia neukan,



F. BARANDIARAN

baina zinearena beste mundu bat da, eta hor jarraitzeko hemendik aldegin behar nuen, Madril-edo. Horrek nire bizitzaren erabateko aldaketa suposatzen zuen (ezkondata nago, seme-alaba pareta ditut, eta aldaketak ez zuen pena merezi)."

Azken hamar urteotan oso gustora dabil aktoretzan (enkargatutako lan bat errepresentatzea da berea). Eta egiten duen guztia dauka aktore-lantzat: bikoizketa, nahiz zine-antzerki edota telebistako programak. Denak direla gauza baten zati ezberdinak, alegia.

Bikoizketa lanetan aritzea baino gratifikanteagoa litzateke, hori bai, aktoretzan aritzea, "osotasuna delako: bikoizketan zati bat da zurea bakarrik, abotsa; al-diz, zinean edo antzerkian zu zara, oso-rik. Diferentea da". Bizitzan batzutan egin behar dira aukeraketak eta berea egin zuen Felipe Barandiaran aktore polifazetikoak.

J. Arano

Ostatua

ZERAIN

Tfnoa: 80 17 99

EZKIOGA'KO Agermenari bertsoak

1

Afantzale bat niganatu da
gizon prestuaren gisa,
Ezkion dagon asunto oñezaz
kantak jañi albanintza;
itsas gañian omen darama
bere munduko bizitza,
biotzetikan maitatzen ditu
jaungoikua ta Eliza;
aren negaraz erukituta,
bayetz eman diot itza.

2

Afigarizko pasadisoak
jaun oñek dizkit kontatu,
ez det penarik ditualako
papelian apuntatu;
ezin kontala jende egitenda
Ezkio mendira juntatu,
pobre aberats denak nastuan
erezatuta, kantatu;
sinismen auxen dauka dana
bizi leiteke kontentu.

3

Ama Birjiña datoñenean
ikustendute batzuak,
berari begira gelditzen dira
zabaldurikan besoak;
gezuña dala kontari daude
gaixto soberbiosoak,
bai dirudite ardi leyala,
jaten dabilzan otsoak;
sinismen ona sartu deiela
gure Jaun amorosoak.

4

Askotan oñuz joaten dirade
sinismenikan gabeak,
desanparatu nai dituztenak
Jesukristoren legeak;
zuek desio dituzutenak
ez dira askos obeak,
era oñetan bajatutzea
ez du merezi fedeak;
milagorenbat egingo digu
zeru ta luñen jabeak.

5

Nik sinisten det Jesus dagola
altueneko graduak,
eta Ezkioako ibilerare
kasik alako moduan;
ori txantxetan agertzen danik
ez inork artu buruan,
Ama Birjiña ikusiaren
jende asko inguruan,
oyek ez dute apuratutzen
geiago dago zeruan.

Txiñitak eta Erauskin'ek



Erauskin'tar Patxi

6

Ama Birjiña askok ikusi
Ezkioako luñean,
jendea franko bildutzen zayo
iñoiz inulabañean;
ankak jartzeko tokirik ez ta
dagon leku labuñean,
Zumañagatik beraxiako
Ormaiztigitik uñean;
Andua deitzen zaion tokian
Santa Luziko auñean.

7

Oraindik ere enpañatzenda
gu salbatzeko lanakin,
sinistamenbat egiazkua
jañi nailuke denakin;
bide txarñetan gabiltzalako
sentimentatu ta penakin,
gaixto guztiak gonbertitzera
bere ejemplo onakin;
gaurko eguneko batzuek baño
luziagoko gonakin.

8

Oñen semiak ez balu egin
amoriozko bixita,
gaur oraindikan egongo ziran
zeruko atiak itxita;
zenbaitek gogor egiten digu
ori esaten asita,
guk ezdizugu sinistatuko
ezgenduen ikusita;
oñelakuak egon liztezke
beren animaz etxita.

9

Amak badaki zerengatik zan
Jesukristoren bixita,
nola jakintzun, ez da egongo
berak egin ta azita;
kulparik gabe eman zioten
zenbait kolpe itusita,
biotza erdibi egin liteke
oñen planja ikusita,
Kalbarioko mendian il zan
Kurutze bati josita.

— 10 —

Jesus'en Ama maitagarria
aingeruen Eñegiña,
Zeruan sartu obe genduke
su leizean ere baña,
gauz ori guri erakutzitzen
bazabiltza alegiña,
bera jetxita negar egiñaz
ain dezu jeniyo piña,
guziak ondo gonbertitutzen
badaukazu zer egiña.

— 11 —

Euskal-erian bizi izanaiz
iñoiz joan ere Prantzia,
neroni ere zabarkerian
gaze denbora pasia,
gorputza ala dabilenian
animak daukan trantzia,
denbora ayek joan ziraden
alegatunaiz zartzia,
ondunitzanda esperatzen det
Zeruetara sartzia.



— 12 —

Urtean beingo konfesuan
zabar xamaña nenguan,
Donostia'ko Jesuitetan
izandu nintzan lenguan,
bildur bilduraz afimatuaz
aita zar baten onduan,
galdetu ziran zer estadutan
ibili nitzan munduan,
bi agureak denboraldibat
atsegin pasa genduan.

Beasañ'en L. Zunzunegiren etxian.

Eguneroko menua

idigoras y Pachi +





THINDUKI, S.A.

GAT 1.025

**inmakuladako zubia eta eguberriak
%5aren deskontuarekin goierritarrentzat
abenduak 4-8:**

St. Lary: 13.900 pzt.
Valthorens: 14.900 pzt.
Piau Engaly: 15.200 pzt.
Tignes: 17.300 pzt.

abenduak 26- urtarrilak 2:

St. Lary: 25.800 pzzta.

urtarrilak 1-6ra:

La Mongie: 27.600 pzt.

urtarrilak 2-9ra:

Valmorel-Doucy (Alpe ak): 19.900 pztatik.

*Prezioan forfait+ alojamendua+ tasak+asistentzia aseguruak
eta abar sartzen dira.*

Urdaneta 11 behea
Tel: 887200
Ordizia

LEIAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarretzea - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tlfn: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tlfn: 88 60 70

BEASAIN

ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK

Alpe

Mariaratz, 4

20200 BEASAIN

88 86 84

Urdaneta, 68

20240 ORDIZIA

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50

88 23 54

88 11 92

88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA


MAKINERIA ERAKUSKETA
HORNIKUNTZA INDUSTRIAL ETA
EGUR BILTEGIA

EGURRA, S.L.

Jose M. Iturrioz, z/g.
Telefona: 88 06 21
Fax. 88 06 21
20200 BEASAIN

C-N 1
Telefona: 88 29 44
OLABERRIA

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta Erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN



Suskrribatu zaitez!

**GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA**

88 96 12

*Irakurri
eta
zabaltzazu
Goierritarra*



"Hamar urteko uzta".

Iñaki Murua,
Xabier Narbarate.

"Argi- Berri".
300 pzt.

A U R T E N ,
Goierri bere
bertso eskola-
ren hamarga-

rren urteurrena ospatzen duen urte honetan, ez da garairik txarrena berau barrutik aztertzeke. 1982 urtean hasi arren bertso eskola bezala, nire esperientzia behintzat hiru bat urte beranduago hasi zen. Lehenik eta behin esan beharrekoa da bi saio nagusitan banatzen dela bertso eskolako iharduna. Ez dakit hasieratik hala izango zen, baina ni hastean,

idatzizko klaseetara joaten nintzen, ordurako martxan zegoela pentsatzen dudan asteazkenetakoarekin inolako harremanik izan gabe.


Gogora dezaket nola sartzen ginen Barrena Kultur Etxeko gela batean, eta arbel baten aurrean Mikel Mendizabalekin fitxak betetzen genituen, eta berak bapateko bertso bat noiz bota zai egoten ginen. Oso giro atseginaz sortzen zen, noski, klasean diren bestelako kontuetatik aparte. Astelehenean bertan, bigarren saio bat izaten genuen, Xanti Garmendiarekin, eta hau zen nik behintzat gus-tokoen nuena, doinuak ikasi, fitxak jaso, ahotza grabatu, entzun... Hala ere beti egoten ginen gure gelaren ondoan zegoen beste gelako inbiritan, esaten bait zuten han bapateko bertsoaren batzuek botatzen zituztela, eta hori guretzat misterio bat zen. Hara joaten zen Joxe Munduate bezalako jendea.

Gero, urtebetez utzi nuen bertso eskola,

denbora faltan, eta berriz itzultzean, handien taldean ginen, bapatean ere saiatuz. Han giro atseginagoa zen, batez ere amaieran, bertso zaleak soilik geratzen. Handik txapelketara, eta hurrengo urtean bapateko gela probatu genuen, Zeberio maisutzat hartuta. Igartzabal ere ihardun izan da lan horretan, baina gaur egun Zeberio dugu nagusi.

Hauexek dira, "Hamar urteko uzta" liburuxka hau irakurtzerakoan, burura datozkidan oroitzapenak; baina finean, nere gogoetak baino ez dira. Beste askorenak ere bildu bait dira Goierriko Bertsolari Eskolaren ibilia jasotzen duen lan honetan. Horra bestela Mikel Mendizabalen bertsoa: Hamar urteko lanak/ zati asko dauzka/ hemen azaldu dira/ noski zenbait puska/ irakasleak eta/ ikasle tupusta/ guztioi eskenia/ dator liburuxka/ denon lanari esker/ lortu dugun uzta.

Aitor Sarriegi



Olerkari eta gudari

"Hitz etena", Eustakio Mendizabal Txikiaren olerkiak. Jon Arano. Susa-Iraungo. 2 edizioa.

Ni ere erdi ijitoa nauzue. Ama Itsasondokoa, alegia. Han bizi dira aitona eta amona, oraindik ere. Bisitan eta joaten nintzen ni, garai batean. Ume lotsatia nintzen eta ez nuen lagun askorik egin. Bakarka ibiltzen nintzen, batetik bestera. Eta azaltzen nintzen tokietako bat, kanposantua. Itsasondoko hilerria, elizatik gorako pendizea, zerura bideko al-

dapa gogorraren irudi. Han agertu ordurako berriz, toki bat zen nere begiak eta oinak ezinbestez erakartzen zituen. Hilobi ederrena, dotoreena. Handia izan behar zuen han zetzanak, eta hala ere, izena baino nabarmenago ezizen hau: Txikia. Eta lore artean izkribu hau, nik ezagututako euskarazko lehenengo olerkia:

Ikastol eta eliz askotan
atea didate itxi

atzeritarrak ta seme askok
lapur bat antzo ezetsi
nere izena apaldu arte
inoiz ezin dute etsi...

zer egin diet etsai bezala
ainbat nazaten gaitzetsi?

Nire buruak ez zituen hango hitzen erdiak ere ezagutuko, baina bihotzaren daradak osorik ulertzen zuen. Eustakio Mendizabal nor izan zen ere ez nekien oso argi, etxean ez zen politikaz hitz egiten, baina hitz erdiz edo han-hemen aditutakoaz sumatu nuen zer edo zer; mutiko ameskoi baten irudimenak ez du askoren beha-

rrik.

Orain eskeletan maiz askotan irakurtzen dugu zortziko handi autobiografi itxurako hori, "Ama, txukatu malkoak!" 1967ko bertso sortako hirugarrena da, ama euskerak bere-gure penak kontatzen dituenekoa, liburu honetako 39. orrian irakur dezakezue. Izan ere, gudar handi ezezik, olerkari apal ere izan zen Txikia, eta alor batean bezainbesteko meritua du bestean, biak ere Euskal Herriarekiko maitasun sutsuaren agerpi-de ziren neurrian.

1944ean Itsasondoko jaiotako Eustakio Lazkaoko beneditarretara joan zen ikas-tera. Jainkoaren grazia bakarik ez, euskararen gozoa ere deskubritu zuen komentuan. Amodio bi hauen agerigarri dira hogeitagitxi urterekin koadernoetan idazten zituen olerki landu, txukun hauek. Gaur askori barregarri iruditzen zaien "euskaldun-fededun" uztarri nobleak biltzen zituen gazte

haren sentimenduak. Garai latzak ziren ordea. Aberriak asko ez, dena eskatzen zuen, eta Eustakioarengan ere maitasun bati nagusitu zitzaion bestea. Euskadiren askatasunagatik utzi zuen komentuko bakea, eta odolaren gorriaz idatziko zituen aurrerantzean poemarik gehienak. Gorena, gurena, 1973ko apirilaren 19an, polizia espainiarrak Algortan tiroz josi eta hil zutenekoa.

Hau dena ez da hizkirimiri pertsonal bat baizik. Txikia gudaria maite baduzu, edo maite gabe ere, Txikia olerkaria ezagutu nahi baduzu, Jon Arano Itsasondoko semeak prestatutako liburu hau irakur dezakezu. Olerkien aurretik Aranoren sarrera eta ondoren Eustakiotoren argazkiak ere aurkituko dituzu. Txikiaren hitza eta bizitza eten bazituzten ere, gure arteko soka ez baitute eten oraindik eta ez ahal dute luzaroan etengo.

Xabier Mendiguren

KONTRAKULTURA

"Bihotzeko prentsa" irakurri eta nahikoa izango zen garai batean, baina, gaur egungo posmodernitatearen basoan mogitzeko, edozein lehiaketara dihoana baino gehiago jakin beharko duzu. Ez duzu "ezer jango" bestela. To kultura pixkat!

50. hamarkadan predikatu zuten kontrakultura Beat belaunaldiko idazleek: Kerouac "Bidean", Burroughs "Gosaria biluzik" eta Ginsberg "Oihua". "Amodio libre", "sexu askatasuna" eta "emakumearen askapena" bezalako kontzeptuen arioan zebiltzan.

Gogoratzeko moduko izenak

—**Bob Dylan:** Bera, eta ez Elvis, bera da Rock'n'Rollaren Errege. Erreberentzia aidearekin hitz egiten du bere *Blonde on Blonde* albutan. 1975ko *Blood on The Tracks*-ez geroztik egin duen edozein gauza mesprezatzen du.

—**Malcom X:** Luther King-en irudiarekin lehiatzen da gaur egun berea. Mahomari errenuntzioa egin zion, "biolentziaren aurkako biolentzia, inteligentzia da" esan zuen. Hil egin

zuten. Nahiko gaizki interpretatua izan da. Spike Lee-ek egin berri du Malcomi buruzko pelikula. Ikusi egin behar.

—**Che Guevara:** Fidel Castroren eskubiko eskua. "El libro sobre la guerrilla" idatzi zuen, "Txikia"k ezagutzen zuen liburua. Oso goapo zegoen txapelarekin eta bere argazki ezagunena ezagunenetakoa omen. Bolivian hil zuten eta berehala bihurtu zen borrokalarien martiri edo gazteen mito.

—**Abbie Hoffman:** Niuyorkeko Burtsaren zorura botatzen zituen dolarrak. "Lapurtu liburu hau" idatzi zuen. 70. hamarkadan sartu zen "underground" mogimenduan.

—**Lawrence Ferlinghetti:** Poeta, "Coney Island pentsamendu-an" izeneko idatzi zuen.


—**Huey P. Newton:** EEBBetatik babesteko Argeliara erbesteratu ziren "Pantera Beltzak" talde armatuaren liderra, FBIk hil zuen.

—**Tom Wolfe:** "The Electric Kool Aid Acid Test" liburuaren auto-rea, "kazetaritza berria"ren sortzaile; urte mordoska bat geroago "La hoguera de las vanidades" delakoa idatziko zuen eta arrakasta galanta izan du bai azken liburu honek eta bai eta horretan oinarrituz eginiko filmak.

—**Ken Kesey:** Merry Pranksters, hippyen tribu kintaesentzialaren liderra. Oregongo bere granjan dago gartzeleraturik orain. "Alguien volo sobre el nido del cuco" pelikula super-ezagunaren autore.

Kexexo

Zine-kritika



"La frontera".
Zuz.: Ricardo Larrain. Antz.: Patricio Contreras, Alonso Benegas, Gloria Laso, Hector Noguera, Aldo Bernales, Sergio Schmied. (Txile)

Estreinatu berritan ikusi genuen Donostian, eta gozamen bat hartu ere bai. Txiripaz joan ginen filme hau ikustera: usain ederra dauka gutatik batek, hara joatea proposatu zuenak. Geroztik Miarritzeko Zinemaldiko "Urrezko eguzkia" (sari nagusia) eskuratu du euskaldun jatorriko Ricardo Larrainek "La frontera"ren zuzendariak. Ondo merezia dauka.

Filma zirraragarri honek Txileko hegoaldeko (edo auskalo nongo, ttotoaren ipurdiko...) herrixka galdu batera gobernu militarrek bidalitako "errelegatu" baten, matematika-ira-

kasle baten istorioa du kontagai. Egoera politiko baten adierazgarri dela somatzen badugu ere, pelikula apenas ez du politikaz hitz egiten. Maitasun istorio bat egon arren tartean, maitasunezko filma ere ez da. Irteerarik ez du, nahiz irteera posibleak asmatzen utzi gintuen.

Protagonistak bertako jende arraroarekin egiten du topo eta Paco Ibañezen kantak dioten bezala (tendras amor, tendras amigos, acuerdate de lo que yo un dia escribi), horiek topatzea du ajola gehien eta aurkituko ditu. Era askotako gertaera eta pertsonai xelebreak: zoraturik dagoen baina ogi puska baino hobeagoa den "buzo" a, itsasoa den bainaren tapoia aurkitu nahi duena, ura hustutzeko; "El Caserio" xuxurlatzen duen 36ko Gerra zibileko errefuxiatu euskalduna, malekoira maleta eta guzti ia egunero abiatzen dena, Euskal Herria dagoen itsasoko puntura begiratzen; haren alaba... Itsasikara iragan baten go-gamena eta beste berri baten hasiera eta akabaera latza leku hartan, filmaren zehar; argi gutxiko funtzionari eskas eta arlote pareak...

Euriak, hotzak eta itsasoak jotako irudi kurioak agertzen ditu, malenkoniak beteak; bestela enteniezinak liratekeen pertsonai eta istorioak lotzea lortzen du, maisutasunez. Mugak ezarri dizkio Txileko erregimenak matematikoari, ustegabekoak ere gertatuko zaizkie, maitaleari eta biei, eta, azkenik, zeruak berak harriak errutzen dizkie herritar denei ere...

Argazkiak, ilun eta tristea izan arren, bere xarma eta enkantuak ditu, paisaia zabalak ikus daitezke; errealismo magikoa, indar telurikoak dantzan, munduaren akabera, denboraren gelditzea, filmatu dituenaren ustean gaude.

Zinematik atera eta gusto ederra eztarrian. Nahiz eta gaizki bukatu. Erreflesiorako ere eman zigun: momentu gozori bai, hizketan. Tabernako gizon-dantza latz, dramatiko-barregarriak, edo nola esan... Lirika, tristezia, umore pittin bat, keinuak... Hori eta horrenbestez ahazten ez den pelikula. Hori bai, zinerakoan bortxa, sexua eta tiroak preziatzen badituzu bakarrik, ez joan eta kitto.

Zinikoak

HERRIKOIA BEZAIN SELEKTOA

Altzagarate

Aramatik gora Altzaga eta Altzagaratik gora Altzagarate. Hango parajeak! Bista ederrak: Murumendi, Ernio, Txindoki, Aizgorri, eta Beasain-Ordizia herriak ikusten dira tontorretik. Gaintza eta Baliarranerako pista onak dauzka, neguan ezik. Auzo horretako Andra Mari festak Azentziotan izaten dira. Bertako ermita San Sebastiani kotsakratua dago, eta bere irudia oso inportantea eta antigolekoa izan behar du.

Ermittaren alboan, Altzagarate Jatetxea. Lehen ere hor zen, meriendaleku gisa jarria, kanpoko mahaietan nahiz ikuiluko behiak ikusten ahal zirela barruan jan zitekeela. Iazko maiatzean berriro eder bat eman zioten etxe guztiari eta orduz geroztik hasi da gorakada bertaraten den jendearen aldetik. Jendeak nahiago izaten du atarian jatea udan, baina badaezpada ere, barrukaldean 140 lagun hartzeko moduko bi jangela egin dituzte.

Lurdes Erauskinek errejentatzen du etxea, Maite eta Ixiar bere bi alaben laguntzarekin. Gehien ibiltzen dutena afariak eta despedidak ikaragarri; ba-



taioak, jaunartzeak, ezkontzak, despedidak, eta zer ez. Goierriko jendea gehienbat, baina baita Donostialdeko bezero ugari. Udan estranjerialeko jendea eta guzti datorkie, nekazalturismo moduan jarrita baitaukate etxeko bi gela bikoitz. Udazkenean ehiztaria nagusitzen da goialde horietan.

Janariari dagokionez, beren espezialitateetan, entremesetan legatz pastela, almejak, langostino, ganbak, jabugoa; arraietan rape, kogotea, legatza, bixigua; txuleta parrilan, solomotxo en-

Jatetxea

kargu ugari, arkumea, ontto-errebueltoak... Jaki ugari eta on aurki ditzakezu Altzagaraten. Baserri bertako oilaskoa eta babarrunak oso preziatuak dira neguan. Postretan etxetik atera gabe eginitako kopa, ijito-beso eta tarta-mota guztiak dira famatuak. Ardota aukera zabala dute eta sagardoa Ikaztegieta-koka darabilte dena.

Bi adibide: Esparraguak, jabugo urdaiazpikoa, frito ezberdinak, kontso-mea, legatz eta solomillo puska bana, tarta jelatuarekin, ogi-ardo eta kafe-kopa 4.100 pezetatan aterako zaizu. Plater bakar bat, baina asetzeko adinakoa: babarrunak azarekin, mondejua, xexina eta txerri-kostillarekin, ogi-ardoak, gazta eta kafea 1.000 pezetatan. Merke eta ondo.

Hango aide sanoa, giroa, aparkamendu eta komonak! Nork uste behar zuen? Ordizialekoak badakite ordea eta harako joera daukate askok eta askok. Ez dakit zer egiten duzun oraindik Altzagaratera ez bazara ailegatu. Dei 884196 telefonora eta enkargatu. Ez zara damutuko!

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA

Jatetxea

HAIZPE

Gudarien Etorbidea - Tel. 883960
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

EXE ALAI

JATETXEA

©

ALTZAGA

DONOSTIA

Itzazondo

Ordizia

GASTEIZ

Tf 885255

SEGURO TALDEA

ZURICH-VITA-HISPANIA

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA


ESTEBAN LASA, 7-1^o Tfnoa: 88 88 92
20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxa: 88 88 92

orkli, s.coop.



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08



ARCO EUROPA
URREZKO IZARRA
KALITATEARI

- BOILOTXOAK
- KRUASANAK, e.a.



Telefona: 88 55 00

ORDIZIA - BEASAIN